

**2019KO AURREKONTUAREN
MEMORIA ETA EZAUGARRI
NAGUSIAK**



2019KO AURREKONTUEN MEMORIA

Iritsi da unea 2019ko aurrekontua aurkezteko.

Aurrekontua finantza administraziorako lan tresna bat da, oinarri duena urtean zehar zer proiektu egin planifikatzeko eta ze lerro estrategiko jorratu behar diren gauzatzeko erabiltzen dena. Abiatuta Udalak dituen baliabideetatik eta jakinda horiek zertarako diren, aurrekontuan zehazten da zer proiektu, zerbitzu eta jarduera egin nahi diren urte osoan.

2019ko aurrekontuak, legealdi amaierakoak dira eta hortaz, legealdi hasieran abiatutako hainbat proiektu estrategiko itxi edo borobiltzeko balioko dute, baina baita ere, Udalak dituen lerro estrategikoekin jarraitzeko.

Linea batzuetara errekurtsu ugari bideratu dira, izan ere, legealdi hasieran hasitako hainbat proiekturi amaiera emango zaie. Hori da, esaterako, Juan Arzamendi Musika Etxearen birgaitze prozesuaren proiektua, zeinak 2019ko aurrekontuak jaso beharko du birgaitzearen exekuzioa amaitzeko behar den errekurtsu kopurua.

Kulturola egitasmoa aldiz, ez da 2019 urteko ekitaldian amaituko, baina errekurtsuok bideratu dira eraikin honetako birgaitze lanek izango duten kostua ehuneko garrantzitsu batean estalita lagatzeko.

Horrela, garbi ikusten da 2019ko aurrekontuetan esfortzu handia egin dela hainbat proiektuen finantzazioa borobiltzeko asmoarekin eta beste sail batzuetako proiektuekin jokaera kontserbadoreagoa eraman dela.

Legealdi osoan zorpetzearen bidea ekidin da. 2019ko ekitaldian Udalaren zorra guztiz kitatuko da, horretarako 316.456,75 euro bideratuz. Horrela, legealdi amaieran Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa ezin hobea izango da, “zero” zor egoerakoa alegia, eta ahalbideratuko du hurrengo legealdiko gobernu taldeak eskuak libre izatea dagozkion proiektuak aurrera eraman ahal izateko.

Toki-Erakundeen Arrazionalizazio eta Finantza-Iraunkortasunari buruzko Legearen arauak betetzen jarraitzen da, zuzenean eta etengabe eragiten digutenak.

Esan bezala, nahiz eta ez dugun mailegurik eskatu legealdi honetan, indarrean dagoen lege esparruak, oso zorrotza, behartu egiten du Udala zor publikoen itzulketa lehenestera beste edozein gasturen aurrean. Egoera honek galarazi egiten du udaleko diru kutzak kudeatu ahal izatea era librean.

Foru Fondoaren eboluzioa, haren aurreikuspenak eta likidazioak hurbiletik jarraitzea behartuta dago Udala. Legealdia osatzen duten urte guztietan zuhurtasuna lehenetsi da aurrekontuak egiterakoan. Aurten, nahiz eta Foru fondoaren egoerak hobera egin duen eta aurreikuspenak onak diren, zuhurtziaz jokatzen jarraituko dugu, izan ere, gehiegizko baikortasun batek ondorio negatiboak izan ditzakeelako.



Zuhurtasunak aurrekontu errealista eta arrazoizko batzuk planteatzera eramaten dute, proiektuak lehenetsiz baina aldi berean, bide emanez pentsatutako ildo eta programa estrategikoak gauzatu ahal izatera legealdian, oreka bat bilatuz diru sarreren eta gastuen artean.

2019ko aurrekontua %3,72 igo da 2018koarekin alderatuta. Igoera nabarmena Foru Fondoaren aurreikuspenetik etorri da.

Pertsonal gastuen igoeraren aurreikuspena nabarmena izan da, %4,36 izanik igoera totala. Horrek eragin du Foru Fondotik eratorritako eta 2019ko Udalaren aurrekontuak jasan duen errekurtsio igoera pertsonal gastuen kapituluak eta zerbitzuen mantentze kapituluak irentsi duela.

2019ko aurrekontuen zati bat, aurten ere, parte-hartzailea izango da. Lehengo urtean abiatu zituen Arrasateko Udalak lehenbiziz aurrekontu partehartzaileak eta horretarako 250.000 euroko kontu sail bat sortu zen, herritarrek proposamenak egin ahalbideratzeko. Jasotako proposamen guztiak udal teknikariek aztertu ondoren, balizkoak edo bideragarriak zirenak bozketara zuzendu ziren eta sei izan ziren hautatuak. Udalak abian jarri ditu bozken bitartez herritarrek hautaturiko proiektuak eta balorazio positiboa egin du prozesu partehartzaileari buruz. Hau horrela, 2019ko aurrekontuek ere antzeko prozesu partehartzailea izango dute, zeinak kontutan hartuko dituen ere hautatuak eta bideragarriak izan daitezkeen herritarren proposamenak. 2019ko aurrekontu partehartzaileen egitasmoa aurrera eramateko 250.000 euroko kontu sail bat jaso da.

Udal mailan aurrekontu parte hartzaileen esperientzia oso aberatsa izan da, politikari zein teknikarientzat. Hala ere, bide bat dugu oraindik egiteko parte hartzearen alorrean eta horregatik partehartze ordenantza baten sorrera jorratzen ari da udala, izan ere, administrazioaren etorkizuna ezin da irudikatu parte-hartzerik gabe. Naturaltasunez txertatzen joan beharko da parte-hartzea administrazioan eta horrek eskatzen du iraganeko inertziak apurtzea eta ordenantza baten bitartez arautzea, ahalbideratuz, parte-hartzea guztiz txertatua geratzea udal funtzionamenduan eta eragotziz, berau izatea momentuko gobernu taldearen nahiaren arabera.

Legealdi honetan hainbat prozesu partehartzaile jarri dira abian: Kirolaren mahaia, Gorostiza auzoan jolas parke estaliaren parte hartze prozesua, zuhaitza aukeratzea Arrasate pasealekuko plazan jartzeko, Arbolapeta-San Frantzisko aukeren prozesua, horma irudiak edo muralak aukeratzea herriko hainbat gunetan, Juan Arzamendi Musika Etxearen eraikinaren izen aukeraketa, ideia lehiaketa Biteri eta Itxaropena plazetako parkeak berritzeko, Makatzenako parkea berritzeko aukera ezberdinen arteko bozketa, Mugikortasun Plan berrirako prozesua, hirigintzako aholku kontseilua, Kurtze Txiki parkearen diseinu aukeraketa, Monterron parkeko ideia lehiaketa edo herrian ikurrina handi bat jartzeko kokalekua.

Parte hartzearen kultura baliagarria da ezberdinen artean akordioa lortzeko, baita ere, herritarrek administrazioarekiko duten distantzia txikitzeko.

Horregatik kontu sail bat jarri da 10.000 eurotako prozesu partehartzaileak egiten jarraitzeko.



2019KO AURREKONTUAREN IDEIA NAGUSIAK

1) GIZARTE ONGIZATEA

2019ko aurrekontuak herritarren ongizateari dagozkion helburuei lehenetsua ematen jarraituko du; horrela, gizarte ongizateko prestazioak mantentzeaz gain, kontu sail orokorrak %2,62 igoera izan du, guztira 2.433.546,33 euroko aurrekontua izanik.

Pertsonak dira lehenetsua eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretatik, laguntza eta programa sozialen mantentzea ezinbestekoa da, eta behar izanez gero horiek handitzeko konpromiso irmoa adierazi nahi da.

Hala ere, programa batzuk indartu egin dira eta beste batzuk sortu. Esaterako, bazterkeria egoeran dauden umeen identifikatze goiztiarra egiteko programa lehengo urtean 40.000 eurotan indartu bazen, 2019ko aurrekontuetan beste 20.000 eurotan indartu da kontu saila, guztira 280.000 euro bideratuz. Garrantzitsua da bazterkeria goiztiarra identifikatu ahal izatea benetan egoera kezkarrirei buelta emateko eta kronifikazioak ekiditeko.

Karterako dekretu berriak, Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian onartu zuenak, gizarte zerbitzuen mapa berri bat ezartzen du Gipuzkoan, eta zehazten du zer zerbitzu eman behar dituzten udalek, baina modu amankomunean eta eskualdeka, eremu geografikoetan banatuta. Helburua, sare publikoaren antolaketa hobetzea da lurralde antolamendu batez bidez, eta eskaintza egokitzea estaldura helburuak finkatuz eta gizarte beharren eboluzioari egokituta, lurralde oreka bat lortuz.

Mapa hori eskualdeko herrian artean zehazten ari da eta zorionez hasierako akordio bat lortu da herrien artean adostasun batera iritsita. Arrasaten, eguneko zentro bat irekitzea proposatzen da, dependentzia baxua duten pertsonentzat bideratua. Garibai kaleko 1 zenbakian dagoen lokalean kokatuko litzateke, Iturbide egoitzaren alboan. Horretarako 25.000 euroko kontu saila egokitu da, proiektuaren idazketa eta exekuzioarekin hasiera ahalbideratuko duena.

Elikagaien bankua abian jartzeko kontu sail berria sortu zen pasa den ekitaldian eta 2019 ko ekitaldian ere, dinamika horrekin jarraitzea aurreikusten da. Horretarako 1.300 eurotako kontu saila egokitu da, lokalaren alokairua ordaintzeko bideratuko dena. Banaketa lana egiteko Udalak hitzarmen bat dauka sinatuta herriko lukro gabeko elkarteekin berau gauzatzeko.

Droga-mendekotasunarekin lotutako prebentzio ekintzak medio, 10.000 eurotan indartu da kontu saila (guztira 40.000 euro) eta nabarmendu nahi da San Juan de Dios ospitalearekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean esparru honetan aurrera eramaten ari den ekimena. Helburu komunak eta/edo osagarriak izanik prebentzio eremuan substantzien gehiegizko kontsumoari buruz, ekimen honen bitartez erakunde guztien baliabideak, esperientzia eta potentzialitateak batzen dira.

Gainera, alde batetik prebentzioa egiten da DBHko ikasleekin, baina bestetik, Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko gaixoak errehabilitatzea eta komunitatean txertatzea ere ahalbideratzen du ekimenak.



Lankidetza hau 2018 urtean hasi eta 2021 urtean bukatuko da eta prebentzio esku-hartzea egingo da DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleen artean.

Bestetik, Arrasateko diagnosi bat egiteko lan bat ere abian da Kalexka elkartearekin batera gure herrian drogaren kontsumoen informazioa izan eta, arrisku kontsumoen ikerketa, alegia.

Droga-mendekotasunarekin lotutako programa hauek estrategikotzat jotzen ditu Udalak ulertuta gazteak direla bailarako etorkizuna.

Bestalde Etxez etxeko zerbitzuaren kontu saila 54.000 eurotan handitu da (guztira 454.000 euro) langileen lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena ahalbideratzeko eta esparru honetan zerbitzuak gehitzeko.

Erabiltzaileari etxez-etxeko laguntza prezio/ordua jaitsi zaio zerbitzua erakargarriagoa izateko, zerbitzuren eskaera handitu dadin. Erabiltzaileari gehienez, lan egunetan 15€ orduko kobratuko zaio (lehen 18,52€) eta neurri honek udal baliabide gehigarriak bideratzea eskatzen du, baita ere zerbitzua asteko egun guztietan emateak ekarriko duen errekurtsio beharra (lehen astean zehar soilik). Gainera, Zaintza zerbitzu berri bat jartzea aurreikusten da, ikusita gure gizartea geroz eta zaharkituagoa dagoela eta nagusien zaintza izango dela gure gizartean etorkizuneko erronka.

2) ENPLEGUA

Enpleguarekin gure konpromisoa lehentasunezkoa da, horregatik miloi eurotik gorako aurrekontua du sail honek, 1.129.358,50 eurotako izanik.

Arrasatera ezarpen ekonomiko berriak erakartzeko ekintzak ahalbideratzeko 10.000 euro ezarri dira eta aktibitateak, foroak eta lan azokak gauzatzeko 30.000 euro.

Lehenengo urtean Gaztelan izeneko programa jarri zen martxan baina ez zen lortu erakargarria izan eta pertsona kopuru minimoa egotea programa abian jartzeko. Horregatik, 2019ko ekitaldira begira Lan r BAI proiektua jarri nahi da martxan eta horretarako 106.440 euro bideratu dira.

LANBIDE-rekin eskumen inguruko gatazka medio, ezin denez gazteentzat beka programa argitaratu, beste formatu baten baitan, gazteei lan merkatuan sartzen lagundu ahal izateko Ikasketa amaierako proiektuak eta lanpostuetarako behar den prestakuntzaren inguruan sortutako programa mantentzen da (70.000 euro), baita ere enpresa berriak sortzen laguntzekoifondoa (35.000 euro) edota langabetuen formakuntza gastuetarako laguntza programa (30.000 euro).

Gainera, langabetuak kontratatuzeko laguntza 160.250 eurotako errekurtsioak izango ditu.

Jarraituko da kolaborazio publiko-pribatuan lan egiten eta Gureak taldeari bideratuta 9.000 euroko laguntza ezartzen da pausoak izeneko programa ahalbideratzeko.

3) INBERTSIOAK ETA MUGIKORTASUNA

Inbertsioek erakusten dute zer proiektu estrategiko egingo diren legealdian, izan ere, kontu sail gehienak urte anitzekoak izan ohi dira .



Hala, Mugikortasunarekin lotuta, 100.000 euroko kontu saila bideratu da Erguineko igogailuaren proiektua exekutatzeko hasteko, nahiz eta proiektuak bere osotasunean izango duen kostua 1.000.000 eurotik gorakoa den. Auzora igotzeko irisgarritasuna helburu duen proiektua izanik, estrategikoa da, izan ere ahalbideratuko bai du herritarrek autoaren gainetik aukera jasangarriago bat izatea.

Makatzeko igogailua amaitu ondoren, Erguineko igogailua da Udalak Mugikortasun Planaren baitan exekutatu duen hurrengo igogailua. Aipatzekoa da gainera 2019ko aurrekontu partehartzaileen prozesuan bozken bitartez bigarren geratu zen proiektua dela.

Era berean, eta Mugikortasun plan berriaren baitan, bidegorriaren jarraipenak ere garrantzia du eta honenbestez, Araba etorbideko proiektua gauzatzeko 200.000 euroko kontu saila jaso da. Herriko sarrera nagusietako bat izanik, estrategikotzat jotzen da bidegorria saretu, espaloia handitu eta egun espaloia gainean dauden kotxeen aparkalekuak modu egoki batean bideratzea.

Oinezkoak jarraituko du protagonista izaten. Aurrekontuak badu 100.000 euroko kontu saila Zigarrolako Gipuzkoako etorbideko espaloien berritze lanak aurrera eramateko. Proiektuak Gipuzkoa etorbidea hartzen du bere osotasunean eta faseka egingo da. Bigarren fasea exekutatu ahal izateko jaso da aipaturiko kontu saila.

Urbanizatzeko proiektuei dagokienez 2019ko aurrekontuan jaso dira Udala Goikoa urbanizatzeko proiektua (22.000 euro) eta Hondarribi kalea urbanizatzeko proiektua (48.000 euro).

Gainera Santa Teresa Agerre kaleen atzealdean ezponda egonkortzeko lanak egingo dira segurtasuna areagotzeko helburuarekin (200.000 euro).

Jarraituko da auzoetan haur parkeak hobetzen eta 125.000 euroko kontu saila gorde da Santa Barbaren ur parke bat egiteko. Kaleen asfaltatuak konpontzeko 200.000 euroko kontu saila sortu da.

Ondare publikoa berreskuratze aldera Barrenatxoko teilatua konpontzeko 40.000 euro bideratu dira.

4) EUSKARA

Euskarari dagokionean, 2017an hasi zen Udala euskara eragileekin batera Kluster Soziolinguistikoaren laguntzarekin hizkuntza aktibazioaren inguruan lanketa bat egiten.

Euskalgintza soziala eta instituzionala apalaldian murgildua zegoenaren sentsazioa jaso zen eragileekin egindako bileran. Hortik abiatuta, herrietan euskararen erabilera sustatzeko hausnarketa prozesu bat martxan jartzea erabaki zen. Hautsak astindu eta estrukturalak aldatzeko beharra ikusirik, modu eraginkor eta aktiboago batean lan egiteko moduak aztertzea egoki ikusi zen eta horretarako beharrezkoa da herri mailan elkarrekin jarduteko moduak aztertzea eta probatzea, lan egiteko modu berriak eraikitzea, gakoak identifikatzea eta metodologia sortzea. Prozesu honetatik eratorritako akzioei bide emateko 6.000 euroko kontu saila mantentzen da.



Bestalde, ESEP berritzea eta Udal barruko erabilera plana berritzea ere suertatu da 2018ko ekitaldian. Plan hauen berrikuntzak emango dizkigu etorkizuneko ildoak eta urratsak.

Horrez gain, Kulturolaren proiekturen exekuzioa esleitu eta haren exekuzioa hasiko da 2019ko ekitaldian eta udal euskaltegiak lokal egoki baten eskariari erantzungo dion egoitza berria izango du Euskal Kultura ardatz duten beste eragileekin batera.

Barne funtzionamendura begira, barne antolamendu berriaren ebaluazio egin da, bai antolaketa berriaren estrukturan parte hartu duten euskaltegiko bi langileekin baita ere euskara saileko arduradunarekin. Balorazioa positiboa izan da izan ere, euskaltegiko langile profesional eta kualifikatuak lagunduta, sinergiak sortzea ekarri du hainbat esparruetan, emaitza positiboak eta hobekuntza nabarmenak lortuz.

Bestalde, euskal komunikabideak diruz laguntzen jarraituko da, hala nola, Goiena prentsa eta telebistarako 165.703 euroko kontu saila bideratu da eta Goiena irratirako beste 30.000 euroko kontu saila. Aldiz, Mondraberrri aldizkari digitalari 30.000 euroko kontu saila gorde zaio eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin sinatutako hitzarmena bide emateko 44.345 euroko kontu sail bat gauzatu da, zeinak Jokin Zaitegi beka ere barneratzen duen Nobel sari bat euskarara itzulia izan dadin ahalbideratzeko. Euskarako ekintzak gauzatzeko 25.000 euroko kontu sail bat bideratu da eta euskarazko diru-laguntzak emateko 88.374 euroko kontu saila.

Aipatzekoa da Euskara sailari bideratzen den aurrekontua miloi eurotik gorako dela, 1.202.972,32 euro alegia.

5) BERDINTASUNA

Berdintasuna izan da igoera nabarmena izan duen kapitulua, berau izanik %92,28.

Kontu sailen izenak gaurkotu beharra zegoen, emakumearen ordezkari berdintasuna kontzeptu bezala erabiliaz, izan ere, berdintasun politikak gizarte osoarentzat diseinatzen dira eta ez emakumeentzat soilik.

Zehar-lerrozkotasunaren logikaren baitan berdintasuna bultzatzeko gizartean pentsatzea ezinbestekoa da, helburua izanik gizartea estrukturaliki eraldatzea eta aukera berdintasuna bermatzea.

Osoko bilkurak 2018ko ekainaren 5ean onartu zuen mozio bat zeinak eskatzen zuen Udaleko sail guztietan berdintasun politiken inguruko formazio saioak egiteko errekurtsioak zuzenduko zirela. Berdintasun Sailean kontu sail espezifikoa sortu da beste sail estrategikoekin zehar-lerrozkotasuna lantzeko eta aipaturiko formazioa eskaintzeko helburuarekin. Berau jorratzeko 20.000 euro bideratu dira.

2006an Arrasateko Udalak “Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Plana” onartu zuen, hasierako apustua 2006-2010 plangintza izatea erabaki bazen ere 2013ra arte luzatzea erabaki zen 2012an.

Urte guzti hauetan Arrasateko Berdintasun Sailetik aipatutako planean jasotako helburu zein jarduera asko burutu badira ere, planaren ebaluazio eta dagokion jarraipena egiteko beharrezan aurkitzen zen Udala eta lan hori 2018 urtean gauzatu da.



Horregatik indarkeria matxistaren kontrako bigarren plana egikaritzeko eta 2019 urterako plan operatiboa martxan jartzeko 103.000 eurotako kontu sail berri bat sortu da.

Ikastetxeetan indarkeria matxistaren identifikatze goiztiarra eta ekiditeko proiektuak partida propioa izango du 2019ko aurrekontuetan. Proiektu iraunkorra da, ikastetxeetan oso balorazio positiboa duena eta guztiz beharrezkoa kontsideratzen dena. Egitasmo honetarako 44.000 euroko kontu saila jaso da.

Arriskuan dauden emakumei laguntzeko programaren kontu sailaren bitartez finantzatzen dira indarkeriari aurre egiten dioten emakumei zuzendutako talde-terapia, Arrasateko emakumeentzako aholkularitza juridikoa, eta urgentziazko egoerei erantzuna emateko zerbitzu puntualak. Kontu sail hau mantentzea ezinbestekotzat jo da.

Gainera, 2018ko urriaren 2an osoko bilkuran adostutako adierazpen instituzional batean jasotako eta eremu publikoan berdintasunezko aitortza eta memoria lortzeko egitasmoari bide emateko 3.000 eurotako kontu saila jaso da. Horretarako aditu talde bat eratuko da informazio eta dokumentazio bilketarako; eremu sozial, politiko, kultural, zientzia mundu, ikaskuntza, eta abarretan aitortza merezi duten Arrasaten izan diren emakumeen gainean. Ondoren hautaketa prozesua herritarren parte hartzera zabalduko da.

6) INGURUMENA

2019ko ekitaldian Antoñako hezeguneari jarraipena ematen zaio eta horretarako 40.000 euro bideratzen dira.

Irudiko lur eremuan, anfibio, landare eta hegazti autoktonoak hazteko gune bat sortzeko proiektua da. Anporretatik doan errekatxoa albotik igarotzen dela baliatuta, zingira edo putzu bat sortu nahi da, 20 eta 30 zentimetro arteko sakonerarekin, espezie autoktonoentzako leku bat sortuz. Proiektuarekin 2018 urtean hasi zen Udala baina 2019ko aurrekontuetan ere isla izango du, izan ere, proiektuaren exekuzioa 2019 urtean egingo da.

Gainera, Etxezarreta basoaren erosketari aurre egiteko bigarren ordainketaren zatia 2018 ko aurrekontuen kontura egingo bada era basoaren berreskurapena egiten hasteko 5.000 euroko kontu sail berri bat sortu da.

7) MERKATARITZA, TURISMOA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Merkataritzak eta turismoak sail propioa dute legealdi honetan. Turismo plana martxan da eta bertatik eratorritako linea bat garatzeko kontu saila indartu egin da. Horrela, Turismo kooperatiboaren ardatza jorratzeko errekurtsuak 10.000 eurokoak izatetik 20.000 eurotara egokitu dira, ikusi bai da, Arrasatek baduela esparru horretan egiteko ibilbide zabala.

Era berean teknologia berrien kontu saila mantendu egiten da 15.000 euroekin eta 26.000 euroko kontu saila egokitzen da turismo aktibitateak egiteko.



Jarraituko da herriko baserriarrei laguntzen, eta egitasmo erakargarriak antolatzen herritarrek herrian bertan kontsumitu dezaten. Merkataritza eta nekazaritza ekintzak egiteko 13.000 eurotako kontu sail bat jasotzen da eta komertzio aktibitateak gauzatzeko 11.700 euroko kontu saila.

Baita ere, herriko merkatarik elkartearekin elkarlanean, sinatzen den hitzarmenez baliaturik herriko merkatariek herrian ere ekintzak egin ditzaten ahalbidetzeko 31.000 euroko aurrekontua jaso da.

Alde zaharreko plan berezia aldatzeko prozesuari ekiteko 20.000 eurotako kontu saila jaso da. Orain dela 18 urte aldatu gabe dagoen eta komertzioan zuzenean eragiten duena plana da alde zaharreko plan berezia.

Arrasateko herritarrek herrian erosi dezaten eta herria girotu eta berau txukun mantentzeko kontu sailak ere aipatzen dira, ulertzen bai da herri atseginak laguntzen duela ere komertzioa. Ildo honetatik doaz Gabonetako argiak jartzeko kontu saila (26.000 euro), Gabonetako izotz pista (26.000 euro) jartzeko ekimena, lorategien mantentzerako kontu sailaren indartzea 27.000 eurotan (guztira 35.000 euro) eta baita fatxadak garbitzeko kontu sailaren indartzea ere. Azken hau 10.000 eurotan indartu da, guztira 30.000 bideratuz.

8) KIROLA

Kirolari garrantzia eman zaio legealdi honetan. 2017an Uarkapeko gimnasio berria ireki zen eta 2018ko aurrekontuetan aurreikusita zegoen etorkizunera begira kiroldegi berri bat egiteko aurreproiektuarentzat 25.000 euroko kontu saila. Aurreproiektuarekin amaitu ondoen eta prozesu parte hartzaile baten ondoren, Arrasatek behar duen kiroldegi berriaren proiektuaren idazketarekin hastea beharrezkoa da.

Arrasatek orain dela 40 urteko kiroldegia dauka eta beharra badu kiroldegi berri baterako, horregatik, 2019ko aurrekontuetan kontu sail bat jasotzen da, 40.000 eurotako, proiektu definitiboaren idazketa ahalbideratuko duena.

Musakolako gimnasioko aholkularirako, SOAF zerbitzurako eta Musakolako gimnasioko aholkularirako partida bat sortu da 123.250 eurotako.

Kirolaren plan estrategikoa, era parte hartzailea batean egin da legealdi honetan kirol mahaia deituriko organoan eta orain, 2019 ko aurrekontuetan 10.000 euroko kontu sail bat sortu da Plan Estrategikoaren ekintzak abian jartzeko.

Bestalde, 2018 urtean egin dira Iturripeko lurraren berriztatzea eta Mojategiko belar artifizialaren aldaketa. Horregatik kirol saileko inbertsioak 150.000 euroko kontu saila izango dute 2019ko aurrekontuetan.

9) GAZTERIA ETA HEZKUNTZA

2018 urtean gazteei lotuta Erasmus + proiektua abiarazi da eta jarraipen bat izango du proiektu honek 2019an, Arrasateko gazteak kanpora eta kanpokoak bertara etor daitezten sustatu eta laguntzeko. Horretarako 10.000 euroko partida bat bideratu da. Gazteen emantzipazio



aukerak areagotzeko alokairuetan Udalak eskaintzen dituen diru laguntza kontu saila bikoiztu egin zen 2018 urteko aurrekontuetan eta 2019 urteko aurrekontuetan ere 60.000 euroko kontu saila mantendu da, ahalik eta gazte gehien izan daitezen laguntza horien onuradun.

2018 urte amaieran txikitxokoa jarri da abian, 2018 ko aurrekontu partehartzaileen egitasmoaren baitan, berau izan zelarik proiekturik bozkatuena. Horrela, 2019an txikitxokoaren funtzionamendura 36.600 euro bideratu dira.

Hezkuntzan eragitea garrantzitsua izanik, eraikinetan inbertsioak egiteko diru kopurua mantendu egin da, 100.000 eurotako izanik azken kopurua. Gainera, Eibarreko hizkuntza eskolako gela desplazatuak Arrasatera ekartzea lortu da EPA eskolan kokatuko delarik probisionalki. EPAren gastuetarako bideratzen den kontu saila 28.000 eurokoa da.

Bestalde, haurren parte hartzea ahalbideratzen duen “umeen kontseilua” egitasmoarekin jarraituko du Udalak eta 22.500 euroko kontu sail bat bideratu da helburu horrekin.

10) KULTURA

Legealdiko izar proiektuak, Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxea eraikinak kontutan hartzen dituenak, protagonista izaten jarraitzen dute 2019 ko aurrekontuetan. 500.000 euroko kontu sail bat zuzendu da Kulturola proiektura, hau da, Erlojuaren Eraikinaren birgaitze lanetara, eta 1.080.000 euro Juan Arzamendi Musika Etxea egiteko proiektura. Kultura eta musikari egoitza propio eta txukunak emateko asmoarekin eskualdean ere erreferente kultural izango den proiektua gauzatzen hasia da 2018 urtean eta obrak bi urte luzez iraungo dute oraindik.

Apustua estrategikoa da. Legealdi honetan tamaina handieneko proiektua izango da bi eraikin horiek birgaitzea, erantzun egoki bat emateko kultura jarduera osoari, une honetan egoera eskasean baitago.

Bestalde, Amaia Antzokiak ere berritzeko premia duela ikusita 50.000 euroko kontu sail bat bideratu da bertan egin beharreko hainbat proiektu exekutatzeko.

Era berean, Arrasateko Danborradaren eskari historikoari erantzuna emateko 15.000 eurotako kontu sail bat sortu da, Danborradako abestiekin disko bat grabatzeko. Gainera, danborrada herrikoi bat sortzea da ideia, bertako elkarten doinuak bilduko dituen eta Arrasateko abestiekin osatutako bilduma izango da, kultura herrikoa indartuko duena alegia.

Mural margoketarako 6.000 euroko kontu sail bat sortu da, muralak margotzearen egitasmoekin jarraitu ahal izateko herriko artisten bidez bertako kaleak biziberritzen.

Gainera kultur ekintzetarako 350.000 euroko kontu saila mantentzen da, baita ere herriko jaiak ospatzeko bideratzen den 318.000 euroko kontu saila ere.

11) SEGURITASUNA

Herritarren segurtasuna garrantzitsua izanik, 2017an hasitako bi egitasmoa nabarmendu daitezke, alde batetik, autoen eta garraio publikoaren abiadura moteltzeko radarrak, eta bestetik,



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MCCRAGÓN

Lanako biribilgunea egitearen egitasmoa.

2018an jarri ziren abian radarrak herri barruan eta egin den balorazioa positiboa izan da, izan ere, datuen arabera, harrapaketak % 67an jaitea lortu da. Datuak kontutan izanda 2019ko aurrekontuei begira, asmoarekin jarraitzea erabaki da eta radarretan zinemometroa alokatzeko 72.600 euroko kontu saila jaso da.



Aipatu eta gero 2019ko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak, zenbatekoak agertuko ditugu aurtengo ekitaldirako aurreikusiak, bai udalarena, bai Iturbide egoitza erakunde autonomoarena; hona hemen horiek:

Udalaren aurrekontua	33.448.185,72 euro
Iturbide egoitzaren aurrekontua (*)	1.772.362,46 euro

(*)Bakarrik urte erdi – Kabian sartzea aurreikusita dago eta

Aurrekontu orokor finkatua edo aurrekontu biak batuta, barne transferentziak kenduta (ekarpenak defizita estaltzeko eta udalaren fakturazioak, erakunde autonomoari ur eta zabor zerbitzuak egiteagatik) kopuru hauxe dugu, **35.214.548,18 euro**.

2019ko zenbatekoak alderatuz gero 2018rako onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau dugu:

ALDERATUTA 2019-2018 AURREK. (kopuruak mila euroan)

ERAKUNDEA	AURREK. 2018	AURREK. 2019	ALDAERA	2019/2018
Udala	32.247,06	33.448,19	1.201,13	3,72%
Iturbide (*)	3.442,63	1.772,36	-1.670,27	-48,52%
Aurrek. orok. (*)	35.649,76	35.214,55	-435,21	-1,22%

(*) Iturbideren aurrekontua urte erdian, Kabian sartuko baita

Aldez aurretik, kontuan hartu behar da zer eragin “berezia” gertatzen den Iturbide Egoitza erakunde autonomoan, alderatu behar direnean 2018 eta 2019 ekitaldiak, eta, halaber, horrek zer intzidentzia duen aurrekontu orokor finkatuan, zeren 2019an bakarrik jasotzen da aurrekontuan ekitaldiaren erdi bat (kalkulatuta zuhurtzia marjina batez, izan ere, ziurrenik, 2019ko 2. lauhilekotik aurrera espero da sartzea), erakunde autonomoa desegin egiten delako eta Kabia foru erakundeant sartu.

Efektu atipiko eta berezi hori kenduta, kopuruak aztertu eta ikusi daiteke udalaren **aurrekontuen proiektuaren aurreikuspenek igotzen dutela % 3,72 iazko kopuruaren aldean**. Iturbide Egoitzan, estrapolatuz gero lehen seihilekoko kopuruak 2019ko urte osoari, ekarriko luke % 2,97 gehitzea. Azkenik, aurrekontu orokor finkatuak, zuzenduta Iturbideren lehen seihilekoaren efektua edo ondorioa, eroango gintuzke ere % 3,7 inguruko gehitze batera. Azken batean, 2019an baiestatzen da hazkunde txikiko zikloa, 2018an hasia udal aurrekontuetan, zeinaren jatorriak erantzuten dion udal finantzaketako foru funtsaren diru sarrerak hazteari (ziklo ekonomikoarekin zuzenean erlazionatuta) eta diru sarrera berezi batzuei, lortu direnak hirigintzako operazio jakin batzuegatik (errepikatuko ez direnak hurrengo ekitaldian).

Jarraian aztertuko ditugu, xehetasun maila handiago batez, udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru sarreraren partida nagusiak, eta Iturbide erakunde autonomoaren aurrekontuak memoria daturaz aztertutik erakundeak berak idatzita, agiri honetan bertan atal berezi gisa agertzen dena.

Hasiko gara Arrasateko Udalaren aurrekontua aztertzen gastuen ataletik.

GASTUEN AURREKONTUA 2019

2019ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 33.448.185,72 euro, eta % 3,72ko igoera du iazkoaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2019ko aurrekontuak kapituluz kapitulua, aurreko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2019KO AURREK. - 2018KO HASIER. AURREK.

Kapitulua	AURREK 2018	% G/B	AURR. 2019	% G/B	Aldea	19/18
I Pertsonal gastuak	11.028,3	34,20%	11.508,6	34,41%	480,3	4,36%
II Ondasunak eta Zerbitz.	10.663,2	33,06%	11.343,5	33,90%	680,3	6,37%
III Interesak	15,8	0,05%	0,5	0,00%	-15,3	-96,84%
IV Transfer. arruntak	4.804	14,90%	4.891,4	14,62%	87,4	1,82%
V Kreditu globala	325	1,01%	320	0,97%	-5	-1,54%
VI Inbertsioak	3.930,8	12,19%	4.079	12,19%	148,2	3,77%
VII Kapital Transf.	983,6	3,05%	807,1	2,41%	-176,5	-17,94%
VIII Finan. Akt. Aldak.	180	0,56%	180	0,54%	0	0
IX Maileguen amortizazioa	316,4	0,98%	318,1	0,95%	1,7	0,54%
Guztira	32.247,1	100%	33.448,2	100%	1.210,1	3,72%

(Kopuruak mila euroan adieraziak)

Koadro hau aztertuta, ikus dezakegu, portzentajeetan, udalaren gastu globalari buruz, 2019ko aurrekontuak ia ez duela aldaketa esanguratsurik 2018ko urtearen aldean, eragiketa arrunten eta kapital eragiketen banaketari dagokionez. Aipatu genezake pertsonal gastuen kapitulua pisu handiagoa hartzen duela (+0,21 puntu portzentajeetan) eta ondasunak erostea eta zerbitzu arrunten kapituluan (+0,84 puntu portzentajeetan). Igoera txiki horiek konpentsatzen dira zazpigarren kapit. – kapital transferentzietan kapital eragiketen inportantzia murriztuta (-0,64 ehunekoetan) eta IV. kap. – transferentzia arruntak gutxituta (-0,28 ehunekoetan), eta gutxituz apur bat finantza zorraren garrantzia (interesak + amortizazioak, zeina jaisten den -0,08 ehuneko, aurrekontuko gastu osoaren % 0,95 izanik).

Azken batean, nahiz eta partida mailan egon daitezkeen alde txiki batzuk, aipagarriak direnak, 2019ko aurrekontuaren egiturak, kapitulua mailan, apenas erakusten du aldaketa aipagarriarik 2018ko ekitaldiaren aldean.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen udalak 2019an:



- **34,41 €** erabiliko dira **personal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira udalkide liberatuen ordainketak, haien egitekoak betetzeko udalean.

- **33,90 €** behar dira gastu arruntei erantzuteko, **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortuak.

- **0,95 €** dira **finantza entitateekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).

- **14,62 €** dira **transferentzia arruntak edo diru laguntzak** finantzatzeko; horietatik **7,1 euro** dira zerbitzu mankomunatuaren kuotak (berez udal zerbitzuak dira).

- **12,19 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.

- **2,41 €** dira **inbertsioak diruz laguntzeko edo kofinantzatzeko**, beste administrazio edo erakunde batzuek exekutatuak.


- **0,54 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru sarreren kopuru berdina) eta **Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena** egiteko.

- Azkenik, **0,97 dira kreditu globaleko** kopuruak finantzatzeko, bere ikuspegi bikoitzean, ustekabeak finantzatzeko baliabidea (0,22 euro) eta funts bat, 2019ko aurrekontuen kontura egiteko diren jarduketak, herritarrek aukeratuak parte hartze prozesu batean (0,75 euro).


Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zer eboluzio duen 2019ko gastuen aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2018ko aurrekontuaren aldean, baita ere, 2019ko gastuaren portzentaje banaketa, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraituz.



2018 ETA 2019KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU - 2019KO AURREKONTUA





Orain aipatuko ditugu gastuen aldaera nagusiak eta 2019ko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2018ko ekitaldiko kopuruaren aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.

LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 11.508.648,77 euro

Gehitzen da % 4,36 2018ko aurrekontuaren kopuruaren aldean, eta igotzen da 480,36 mila euro 2018ko aurrekontuaren zenbatekoari dagokionez.

Une honetan tramitazio fasean daude Estatuko aurrekontu orokorrak, 2019 ekitaldikoak (oinarrizko legeriaren izaerarekin, derrigorrean betetzekoa, azken urteotan Estatua ibili da erregulatzen, bere aurrekontu orokorren bidez, soldaten berrikuspen muga baimenduak), eta norabide zehatzik 2019 aurreikuspenak kalkulatzeko ez daudenez, banakako soldata kostuen estimazioak egin dira, sailez sail kapitulu honetan, 2018 oraingo plantilaren arabera, igoyerarik gabeko aurreikuspenekin.

Aurrekoa gorabehera, gaur esku artean dugun informazioan oinarrituta (akordioa enplegu publikoa hobetzeko, sinatua Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren eta ordezkariak sindikalaren artean), bada espektatiba bat edo iragarri bat soldata berrikusteko, zeina izan daitekeen % 2,5/2,75 gehitzea 2018ko ordainketei buruz. Hortaz, soldata berrikustearen kontingentzia bat betetzeko, sartu da partida bat, funts edo erreserba izaera duena, izango dena alde negoziatzaileek (erakundeen ordezkariak eta ordezkariak sindikala) lortu ditzaketen akordioak finantzatzeko. Funts horren zenbatekoa da gutxi gorabehera 2018ko soldata masaren % 2,5, zenbatekoa borobilduta 275.000 euroko balioa.

Soldata berrikustearen kontingentzia funts horretaz gain, badira beste faktore batzuk azaltzen dutenak zergatik handitzen den kapitulu hau, eta nagusiak dira hauek:

- Estimaten da Gizarte Segurantzako kotizazioak gehitzea Udaltzaingoan, udaltzainen erretiro adina (60 urte) agian aurreratu daitekeela-eta ezarritako neurri moduan, 99 mila euroan.
- Partidan diru kopurua handitzea, finantzatzeko langileen erretiro aurreratuko primak, +57,6 mila euro.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, albora utzi gabe pertsonal dedikazioak berriro esleitu izana hainbat sail eta batzordeetara, udal plantilan ez da amortizatzen lanposturik eta ez da sortzen lanpostu berri egonkorrik. Edozelan ere, egoeraren arabera, errefortzuak jasotzen dira aldi baterako langileak kontratatuta, zerbitzu jakin batzuen behar puntualak betetzeko (gizarte ongizatea, hezkuntza, kirolak eta abar).

BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA - 11.343.445,00 euro

Igotzen da % 6,38, 2018ko aurrekontuaren aldean; gastu handiagoa, 680,3 mila euroko zenbatekoa. Alderatzen badugu 2018an indarrean egon den aurrekontuarekin (kenduta Gaztelan proiektuaren efektua, ez baita exekutatu), zeinetan jasotzen baita hasieran onartutako agiria, gehituta urteko kreditu aldaketak, ateratzen zaigu 2019ko kopuruek dakartela aldaketa



arrazoizkoagoa, zehazki % 2,9koa. Igoeraren azalpena, hasieran onartutako 2018ko aurrekontuari dagokionez, zenbakietan, partida hauetatik dator:

- **Partida berria, 30 mila eurokoa, gastuei aurre egiteko, Zerrajera erlojuko eraikineko oraingo erabiltzailak behin-behinekoz kokatzeko**, Kulturola proiektuaren exekuzio obrak iraun bitartean, zeinaren izaera zehatza (alokairua, konponketak, gastuak, hornidurak, garbiketa eta abar) garatuko den benetan planteatutako aldien eta beharren arabera, obrak abian jarri eta gero.
- **Diru kopuruak (dotazioak) igotzea gizarte ongizatearen sailaren programa jakin batzuk egiteko**, zehazki adingabeentzako gizarte-hezkuntzako esku hartzearen kontraturako (34 mila euroan handitzeaz gain, kudeaketa pasatzen da Gizarte Ongizatearen batzordera, Gazteria sailarekin elkarlanean), etxeko laguntza zerbitzua (▲ 54 mila euro), aholkularitza zerbitzua adingabeen babesgabezia egoeretan (▲ 20 mila euro), kontusail berriak aniztasun planerako eta pertsonan nagusientzat (▲ 21,3 mila euro) eta partida drogamendekotasunen prebentzio ekintzak finantzatzeko (▲ 10 mila euro), guztira **suposatzen duena 139,3 mila eurotako gastu gehikuntza bat**.
- **Partida berria Lan R-Bai proiekturako, diru kopurua da 106.440 euro** (udalaren ekarpen garbiari dagokiona 2019an, 2019an eta 2020an erdibana exekutatu beharreko urte anitzeko proiektuaren kostuaren % 50arena), Baldin eta lortzen bada diru laguntza Europako gizarte funtsetik, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018/06/21ean hartutako erabakiaren terminoen arabera. Lortu gura da ibilbide inklusibo pertsonalizatuak sortzea prestakuntza-enpleguaren bitartez, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen egokিতuta, gizarte-hezkuntzako laguntza batez, zeinak ahalbidetuko duen tresnak, bitartekoak eta trebetasunak eskuratzea, beharrezkoak heziketa normalizatu batera eta lan merkatura (babestua edo normalizatua) iristeko.
- **Dotazioa gehitzea bide garbiketako zerbitzuaren partidan, 142,5 mila euro**, 2018/11/06an osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez adjudikatua Cespa, Compañía Española de Servicios Públicos auxiliares, SA enpresari, urtean 1.542.249,01 euro, 4 urtean (luzagarria beste batez), baina hori guztia kontuan hartuta lehen urtean atzeratu daitekeela ezartzea, makina berriak erosteari dagokionez, zeinak ekarriko lukeen kostu gutxiago edo diru gutxiago, aurrekontuko kopuruari buruz.
- **Dotazioak gehitzea Berdintasun saileko partidetan, zehazki prebentzio proiektua genero indarkeriaren kontra eskoletan, indarkeria matxistaren aurkako plana garatzeari dagokionez zer jardun exekutatu, formazioa Berdintasunari buruz udal sail guztietan, dotazioak guztira handituz 142 mila euro**.
- Partida berriak aurre egiteko funtzionamendu gastuei (konponketa, hornidurak, garbiketa eta abar, **Txikitxoko zerbitzua** abian jartzearen ondorioz Maalako Errebala 13an, zeinak dakarren **36,6 mila euroko** iguera bat.
- Gehitzea **kirol partida jakin** batzuk, jarduera fisikoko orientazio zerbitzua (JFOZ), birbideratzea zer zerbitzu eman Uarkapen (gimnasioa), baita ere, jarduera jakin batzuk kirolaren plan estrategikoa garatzeko, 2018ko hasieran egin, eta horrek dakar globalki gehitzea dotazioak (konpentsatzen dira gastu batzuk gutxituta), partidak kirolera bideratuta kapitulu honetan, balio garbi globala da **53,3 mila euro**.
- 2018ko urteari buruz, **gertatu dira ere gutxitzeak** eta kendu izana, behintzat partida espezifiko moduan, eta aipatu daitezke Gaztelan proiektua (-45 mila), energia elektrikoa hornitzea argiteria publikorako (-20 mila, LED teknologiaren eraginez), Urkuluko ura hornitzearen fakturazioa (-11,1 mila, nahiz eta igo egin den m3-ren prezioa 2019rako, % 1,45), estimatzen da kostu gutxiago izango dela aseguruetan



2019an (-11 mila), eta horrek dakar kostu txikiagoak, **87,1 mila euro**, 2018an partida horien dotazioei buruz.

Azkenik, adierazi behar da, lan premisa moduan, kapitulu honen aurrekontua egiteko, irizpide bat erabili dela ez gehitzeko borondatezko gastua, oinarrituz 2018ko bukaeran izan litekeen gastuan, eta zerbitzuen oraingo eskaintza mantentzea; horrek dakar aldaketa horiek, erregela horri buruz, erantzuten diotela izaera berezi bati eta oinarritzen direla lehentasunen balorazio batean.

HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 500 euro

Esan genezake kapitulu hau ia desagertu egiten dela, udal gastuari dagokionez (% 97 gutxitzen da, 2018ko aurrekontuari buruz, -15,34 mila euro) eta hori da udaleko gobernu taldeak bilatu/loritu gura izan dituen egoeraren ondorio logikoa, hau da, zero zorpetzea udal kontuetan legealdi honen amaieran (2015-2019).

Horretarako, 2018an, urteko amortizazio arruntez gain, 318,67 mila euro, eta finantzatua 2017ko ekitaldiko likidaziotik lortutako soberakinekin, maileguak aldeztu aurretik amortizatu dira, 655.000 euroko balioan, eta horrek uzten du saldoa 2018/12/31n, itzultzeke dagoena, 318.150,97 euroko balioan.

Kopuru hori amortizatuko da 2019ko hasieran; hortaz, espero da 2019an ez ordaintzea ezin kopururik mailegu interes moduan.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 4.891.397,45 euro.

Handitzen da % 1,82 (+84,4 mila euro) 2018rako hasieran onartutako aurrekontu dotazioari buruz, nahiz eta, 2018ko aurrekontuaren oraingo dotazioen aldean (sartuta doaz, gainera, kreditu aldaketak), suposatzen du gutxitzea % 2 inguru. Nahiz eta partida jakin batzuek behar duten azterketa eta azalpen osagarri bat, 2019ko aurrentuan jarritako aldaketa datuek, 2018ko kopuruen aldean, balio digute agertzeko aurrekontu agiri berria izaera zorrotza eta estua aplikatu dela, kapitulu honetako gastu partidetarako (batez ere jasotzen ditu zerbitzu mankomunatuaren kuotak eta diru laguntzak).

Kapitulu honen alderdi aipagarriak dira:

- **Zerbitzu mankomunatuaren kuotei dagokienez**, aurreko ekitaldian ez bezala, gaur egun badago 2019ko Mankomunitateko aurrekontuen lehen proiektu zirraborro bat. Agiri horretan oinarrituta, sartu dira aurrekontuko partidetako dotazioak. Partiden zenbatekoa, 2019an Debagoieneko Mankomunitatearen bidez eman behar diren zerbitzuak finantzatzeko, 2.386.405,45 euro da, zeina % 5,15eko igoera den 2018ko aurrekontuan onartutako kuotei buruz (117,1 mila euro gehiago). Edozelan ere, kuotak alderatzen baditugu 2018ko aurrekontuaren bukaerako/benetako kopuruekin (kenduta gastu berezi bat teiltua konpontzeko), 2.305 mila



euroren baliokoa, kuoten gehitzea da zerbait txikiagoa, % 3,5etik gertu. Kostu nagusiak datoz hondakinen bilketa zerbitzutik, kudeaketa zerbitzutik, tratamendu zerbitzutik eta Garbigune zerbitzutik, zeintzuen kostu globalizatua den 1.905.307,69 euro (kostu osoaren % 80 ia).

- Iturbide Egoitzaren azken hiru ekitaldien itxieren eboluzioarekin bat eta kontuan hartuta, gainera, 2019an aurreikusten dela 6 hileko aldi bat bakarrik (errealitatean lehengo lauhilekoa) funtzionamenduari dagokionez, tokiko erakunde autonomoaren irudi juridikoaren bidez, **defizit bat aurreikusten da Iturbide Egoitzarentzat, balio sinboliko moduan, 1.000 eurokoa**, eta adierazitako aldi horretatik aurrera pasatuko da “Kabia” erakundera, foru erakunde, arduratuko dena udal egoitza guztiak kudeatzeaz.

- Enplegua sortzen duten sailei ematen zaion lehenetasunaren froga moduan, mantentzen dira dotazio inportantez udala bultzatutako hainbat programa, Lanbide-rekin argitu/hitzartu ostean zeinena den eskumena, izan ere, horrek zaildu egiten zuen horiek abian jartzea, zehazki diru baliabideak emateko, **315.250 euro guztira, helburu hauei zuzentzeko “laguntza programa langabeak kontratatzeko”, “langabeen prestakuntza gastuetarako”, “lanpostu berriak sortzea”, “beka ematea tituludun berrien praktikak egiteko enpresetan edo karrera bukaerako proiektuetarako” eta “CEI-Saiolani ekarpena egitea”.**

- **Diru kopuru beraz mantentzen dira partidak: Gizarte Larrialdietarako Laguntza programak finantzatzeko eta Larrialdietarako laguntzen berezko funtsa finantzatzeko**, zenbatekoak hurrenez hurren, 300.000 euro eta 20.000 euro, baina aurreko ekitaldietan bezala, horien diru kopuruak **gehitzeko konpromisoarekin**, baldin eta laguntzen eskariaren eboluzioak hala eskatuz gero, ikusita zer lehenetasun markatzen dion gobernu taldeak **laguntza behar duten herritarren beharrei erantzuteko**.

- **Diru kopuruak mantentzen dira diru laguntza izendunak emateko, esleituta daudenak Arrasate Musikali, 325 mila euro, Goiena – prentsa eta irratia, 195,7 mila euro.**

- Memoriaren adierazi bezala, orokortasunez, esandako salbuespenak salbuespen, 2019rako jarraitzen dugu **diru laguntza programekin**, bai eta **2018ko aurrekontuan izaera nominatiboko diru laguntzekin**, iazkoaren antzeko diru kopuruekin. Edozelan ere, kopuru handia delako, komeni da gogoratzea **aurrekontuko baliabideek**, udal batzordeen eta udal sailen diru laguntzen programak finantzatzeko direnak (sartu barik gizarte larrialdietako laguntzak, nagusiki EJK finantzatuak), **1,86 milioi euro** egiten dutela (▼% 0,5 ihazkoari buruz). .

- Halaber, ez dago aldaketarik **udal talde politikoei ordaindu beharreko kopuruetan** (taldeko, zinegotzi kopuruko eta bileretara joateagatik, aurrekontuen exekuzio oinarrien 18. artikuluan ezarritako arauen arabera), legealdi honen hasieran onartutakoei dagokienez (2015/07/13ko osoko bilkura, aldatu barik dagoena), eta kontusailaren diru kopurua mantentzen da 220.000 euroan. Edozelan ere, argi geratu behar da 2019ko ekitaldian legealdi aldaketa egongo denez, partida hau eta baita ere, udalaren zereginak egiteko kargu politikoen ordainketak finantzatzeko dena, litekeena da horiek egokitzea, korporazi berriak onartzen duen antolaketa berriaren arabera. Nolanahi ere, estimatzen da 2019ko diru dotazioa nahikoa izango dela ekitaldiko gastuei aurre egiteko, izan ere, aldi iragankor bat izango dugu, irteten duen korporazioa jardunean eta korporazio berriaren antolaketa onartu arte, non bileren bolumena jaisten den nabarmen aldi normalizatuaren aldean.



BOSGARREN KAPITULUA – KREDITU GLOBALA ETA USTEKABEAK - 320.000 EURO

2015era arte, aurrekontuetan jasoa bigarren kapituluan, 86/2015 Foru Dekretuaren ondorioz, Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua onartzeari buruzkoa, sortu da kapitulu berri bat, bosgarren kapitulua, “Kreditu Globala eta beste ustekabe batzuk” izenekoa, zeinaren bidez ahalbidetzen den ekitaldian zehar sor daitezkeen beharrak finantzatzeko, horiek ez badaude jasota hasieran onartutako aurrekontuan (edo aurreikusita izanik ere, dotazio nahikoa ez dagoenean).

Era berean, kapitulu honetan partida bi jaso dira:

- Orokorra da ustekabeei erantzuteko edo egokitze behar txikiei erantzuteko, zeinak izango duen 70.000 euro, 2018ko aurrekontuan onartutakoaren aldean zertxobait gutxiago (-5 mila uro).

- Espezifikoa da aurrekontuen partizipazio prozesuan aukeratutako proiektuei erantzuteko, martxan jarriak lehenegoz udalean, hala pentsatu eta adierazi baitzen 2018ko aurrekontuetan, herritarren parte hartzea erraztu eta bultzatzeko, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko interes orokorrari eragiten dizkioten proiektuetan. Esleitzen da 2018koaren antzeko dotazio bat, 250.000 euro, azkenik aukeratzeko diren proiektuak finantzatzeari erantzuteko. Amaituta epea proposamenak aurkezteko, alde zuzeneko azterketa teknikoa eginda proposamen horien bideragarritasun tekniko edo ekonomikoari buruz, geroagoa herritarrek emango dute iritzia botoen bidez.

Hortaz, erabaki horrek zehaztuko du zer interbentzio finantzatuko diren, eta kontabilitate egokia egiteko, beharko da egokitu aurrekontuetara (pasatuko dira, egokiak badira, aurrekontuko bere kapituluetara, eta erantzungo zaio proposatutako gastuaren izaera ekonomikoari).

Komeni da adieraztea partidaren lehen banaketa espereintzian, 2018ko ekitaldian egina, proiektu hauek aukeratu zirela, 2018/01/25ean berretsiak Tokiko Gobernu Batzarraren akordioz:

Boto kop.	Izena	Zenbatekoa
643	Txikixoko zerbitzua sortzea	15.000 €
552	Bizikletak garbitzeko eta mantentzeko eremua	6.000 €
468	Erguin auzoko igogailu proiektua idaztea	30.000 €
281	Iturripeko kirol instalazioak berritzea	65.000 €
169	Arrasaten bidegorri proiektua idaztea	40.000 €
139	Haur parke estalia	94.000 €
	Total	250.000 €

Proiektu horiek garatu dira 2018an eta, horietako batzuetan, behar izan dira diru dotazio osagarriak, behar bezala amaitzeko.



SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK - 4.078.951,00 euro

Igo da % 3,77 (148,2 mila euro gehiago), 2018ko aurrekontuan kapitulu honi emandako kopuruari buruz.

Errepikatuko dut memoria hasieran esandakoa, 2019an, aurreko urteetan bezala, garrantzi handia izango dute **"Juan Arzamendi Musika eskola" eta "Kulturola proiektuaren erreforma"** proiektuak finantzatzeko diren partidak, diru kopuruak izanik 1.080.000 euro eta 500.000 euro, hurrenez hurren (aurrekontuaren inbertsio osoaren % 39).

Proiektuetako lehena adjudikatu zitzaion Lurgoien SAU enpresari, osoko bilkurak hartutako erabakiz, 2018/01/16an, guztira zenbatekoa 5.550.012,51 euro. Gainera, proiektuaren exekuzioarekin lotuta kontuan hartu behar da adjudikatu zitzaiona LKS Ingenieria S.Coop. enpresari proiektua idazteko eta obren zuzendaritza lanak egiteko, 238.975 euro, baita ere, kalitate kontrolako lanak eta saiakuntzak, adjudikatuak GIKE SA enpresari, 40.751,59 euroan. Hiru adjudikazio horiekin, eta kontuan hartu gabe proiektua exekutatzean sor daitezken desbideraketak, "Juan Arzamendi Musika eskola eraikina birgaitzeko proiektuaren azken kostua", aurreikusita daitekeena, 5.829.739,10 euro izango da. Horri buruz, esan behar da 2019an esleitutako dotazioaz estaltzen dela kostu horien % 100, nahiz eta aurreikusita dagoen ez dela amaituko 2020ko otsail/martxora arte.

Hain zuzen ere, exekuzio egutegi horretan oinarrituta, 2019an abian jarri beharko da altzariak eta ekipamendua hornitzeko kontratua; hortaz, 2020ko hasieran entregatu eta udalaren esku jarriko da eraikina birgaitua, eta helburua da ekipamendua jasotzea era koordinatuan eta obren exekuzio/amaiera eritmoari egokitua. Ekipamendua finantzatu nahi da 2020ko aurrekontuaren kontura.

Bigarren proiektua, "Kulturola" eraikinari buruzkoa, garapen fase txikiago batean dago, udalaren osoko bilkurak 2018/07/10ean onartu zuen eraikina birgaitzeko proiektua, 6.576.641,92 euroan, baita ere, obren kontratazio espedientea hastea. Gaur egun, espediente hori dago aztertze fasean, aurkeztutako proposamen teknikoak aztertzen (5 enpresak parte hartu dute kontratazio prozeduran), eta ez dakigu oraindik zer eskaintza ekonomiko dagoen; hortaz, oraindik ez da onartu obrak adjudikatzea. Aurreko proiektuan bezalaxe, kasu honetan proiektuaren kostuaren erreferentziarekin (eta ez adjudikazioarena edo eskaintzarena, obra hori exekutatu behar duen enpresak aurkeztua), behar diren baliabide bolumena guztira (proiektuaren eta obra zuzendaritzako zerbitzu sariak, eta saiakuntza eta kalitate kontrolaren kostuak sartuta) izan daiteke 6.815.010,03 euro, eta horietatik, 2018ko aurrekontu dotazioa gehituta 2019rako aurreikusia, finantzatuta egongo lirarteke 4.545,32 mila euro inguru (guztiaren % 66,7), eta gainerako zenbatekoa, 2.269,7 mila euro (horiei kendu beharko litzaizkieke adjudikazio beheratzeak, bai obrarena, bai entsegu eta kalitate zerbitzuena) finantzatuko lirarteke 2020ko aurrekontuen kontura. Hori guztia kontuan hartuta funts gehigarriak jarri daitezkeela, 2018ko ekitaldiko lidazioko soberakinak banatuta (azaroko aurreikuspenek zer horretan jartzen gaituzte). Azken batean, ematen du proiektu honen finantzaketa ere nahiko ondo bideratuta dagoela, hori guztia uko egin barik beste administrazio batzuen finantzaketari, kontuan hartuta ondasun higiezinaren izaera eta kalifikazioa, katalogatua baitago babes bereziko ondare gisa.



Eraikina birgaitzeko proiektuaren exekuzioarekin batera, 2019an abian jarri beharko da nahitaez eskura jartzea oraingo instalazioen erabiltzaileei (Goiko-balu, Trikitixa, Lore gazteak eta abar) behin-behineko lokal alternatiboak Horretarako, hainbat partida eta jardun lerro bideratu dira 2019ko aurrekontuan (2018ko aurrekontuaren dotazioaren osagarriak, 45.000 euro), gastu arrunteko partida bat erreserba izaerakoa (zehazteko zer destino espezifiko izango duen) 30 mila eurokoa, eta partida bi gehiago inbertsioen kapituluan, bata 2018an izan zuen izen berberarekin, dotazioa 15 mila euro, eta bestea, udal ondareko inbertsioak, de 60 mila euroko dotazioa, zati batez izango dena industria pabiloi bat egokitzeko, behin-behinean birkokatzeko helburu horretarako.

Kopuru esanguratsua duten beste proiektu batzuk, aipagarriak, hauek izango lirateke:

- **Amaia antzokiaren berritze obren partida – 50.000 euro** – Agiri gidari bat edukitzeko, balio lezakeena esku hartzeko eta antzemandako beharrei erantzuteko (iluminazioa, eskenatokia, hezetasunak, ekipamenduak eta abar), beharrezkotzat jotzen da proiektu global bat egitea Amaia Antzokia berritzeko. Hala ere, ulertuta iluminazioaren eta ekipamenduen atalei gehien eragiten dien akatsetako batek behar zuela aholkularitza espezializatua, eta geroraezinak zirela iritzita, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017/11/16an, Kultiba S. Koop. enpresari adjudikatu zion proiektu bat egitea iluminazioa eta eszena ekipamenduak hobetzeko Amaia antzokian, 19.360 euroan.

Aurki jasoko da proiektu enkargatua, eta horregatik asmoa da horien exekuzioa abian jartzea; horretarako, partida bat sortu da, 50 mila eurokoa, 2018an dagoen dotazioa osatze aldera.

- **Garibai 1, etxabeko birmoldatze lanen partida (Eguneko Zentroaren zerbitzua) - 25.000 euro.** 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koa, onartu zuen gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroa. Beste gai batzuen artean, arau horrek jasotzen du EAEko administrazioek zer zerbitzu eskaini eta bermatu behar duten. Udal eskumeneko prestatu beharreko zerbitzuen artean, Eguneko Zentroaren zerbitzua dago (1.7), zehazki **“eguneko laguntza zerbitzua ematea pertsona nagusiei”**. Zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.

Zerbitzuaren prestazioak izango dira: Informazioa, bitartekaritza-bitartekotza, esku hartzea hezkuntza eremuan eta psiko-gizarte eremuan (entzute aktiboa eta emozioen kontrola). Izaera osagarriaz jaso ahal izango dira ere mantenu zerbitzuak (janaria) eta higiene pertsonala.

Gaur egun, Arrasateko Udalak ez du ematen zerbitzu hori. Behar horri erantzuteko, pentsatuta dago zerbitzua abian jartzea 2019an, eta asmoa da lokalak kokatzea Garibai 1eko beheko solairuan. Hala ere, ordurako, udala ez da izango eraikinaren jabea (Iturbide Egoitza - lagata Diputazioari, Kabian sartzeko); hortaz, jasotzen da lagapen hitzarmen bat, sinatu behar dena udalaren eta diputazioaren artean, eta horrek baimena emango die udalaren gizarte zerbitzuei hura erabiltzeko. Horretarako, egokitze obrak egin beharko dira lokalean, eta planteatzen da 2019ko aurrekontuan partida bat jartzea, horiek finantzatzeko.



- **Hondarribia kaleko urbanizazioa- 48.000 euro.** Plan orokorraren ikuspegitik Hondarribia kaleak hiru lur ez finkatuaren izaera du. Hortaz, izapidetu eta garatu beharko da urbanizazio proiektu bat. Tramite hori dagoeneko hasita dago gaur egun. Hiri plangintza garatuta eta kudeaketa faseari hasiera emateko, egokitzen jo da urbanizazio proiektua idaztea. Hori hala izanik, beharrezkoa da erreserbatzea diru baliabideak zerbitzu sari teknikoak finantzatzeko, eta gero hori osatu behar da obrak abian jartzeari aurre egiteko, guztiz amaitu arte.

- **Araba etorbidearen urbanizazioa – 200.000 euro.** Araba etorbidea da bide nagusietako bat herrira sartzeko. Egun dituen itxura eta ezaugarriak bere garaian, eta urte askotan, izan zen errepide batenak dira. Zonalde hori egokitu eta berritze aldera, orain dela urte batzuk urbanizazio proiektu bat idatzi zen. Une honetan, berriro jarri da mahai gainean proiektu hori exekutatzeko eta, hortaz, beharrezkoa da sartzeko partida bat, ekimen horri aurre egiteko.

- **Udal ondarearen inbertsioen partida – 60.000 euro.** Partida hau urtero errepikatzen da aurrekontuetan, eta erabiltzen da udalaren ondare ondasunen mantentze arruntak ez diren jardunak finantzatzeko. Esangura berezia 2019an, aipatu daitezke entitateak birkokatzeko jardunak, Kulturola proiektuaren obrek eraginda. Aldi berean, Zalduspeko urbanizazio obrekin lotuta, jasotzen dira jardunak udal pabiloi batean, Araba etorbidean, Zalduspen bota behar diren pabiloietako erabiltzaileak ordena batez birkokatzeko.

- **Ondare ondasunen erosketaren partida – 210.000 euro.** Partida hau aurrekontu guztietan jasotzen da, ondare ondasunen erosketak finantzatzeko, hala egitea iritziz gero. 2019ko aurrekontuetan, gauzatu nahi da, besteak beste, pisu bat erostea Zeharkale Estalian.

- **Igogailua Erguinen – 100.000 euro –** Jardun hau pentsatuta dago bai mugikortasun planean, bai irisgarritasun planean (gaur egun berrikusten), eta lortu gura du erantzutea udalerriko gabezia zehatz bati, zehazki, Erguin auzoan oinezkoen sarbideak hobetzea. Beste modu baten esanda, erraztea eta irisgarriago egitea oinezkoiei, aldapa handiez eraiki zen auzo batera iristeko. Une honetan, proiektua idazten ari da, eta beharrezkoa da partida bat aurrekontuan, 2019an, proiektu horretako exekuzio obrak hasi ahal izateko.

- **Antoñako hezegunea – 40.000 euro –** 2918ko partidaren osagarri (60.000 eurokoa), jasotzen du hezegune bat sortzea Antoña errekatxoaren ibilguan, zehazki garai batean meua garbitoki moduan erabilitako inguruaren aurrean dagoena. 2018an hasitako prozesuak bere bidea jarraitzen du (baimenak, proiektuak idaztea, lurzoruak kudeatzea eta, geroago, obrak egitea) eta balio du proiektuaren finantzaketa osoa osatzeko.

- **Turismo kooperatiboaren partida – 20.000 euro.** Planaren trakzio edo motore proiektua osatzen du esperientzia kooperatiboak. Turismo baliabide moduan hura balioan jartzea eta formalizatzea da Arrasateko baza estrategikoa, sektore horretako aktore adierazgarri bihurtzeko. Esperientzia Kooperatiboa, baina, ez da esperientzia bat sortzen dena modu isolatu batean. Taxutzen da tradizio sekular batean, batu egiten duen burdinaren industria metaliko bazkidearen kulturarekin, Arrasateren historian sustraitzen dena.

Gura da ekimen hori enfokatzeko ikuspegi publiko-pribatu batetik (lankidetzaren udalaren eta Corporación Mondragón-en artean), eta bilatzen ditu rol batzuk, eskaintzen dutenak erosotasuna alde bietan eta egingarritasuna proiektuari. Lurraldeko proiektu bat (eskualdeko pertsonak dira protagonistak), Corporación Mondragón-eko tokiko enpresa ehun kooperatiboarekin elkarlanean.



- **Gipuzkoa etorbidean espaloiak berritzearen partida, 100.000 euro.** 2018an idatzi da eta hasi da kontratazio espediente bat, Gipuzkoa etorbideko espaloiak berritzeko obren lehen fasea kontratatzeko (Oñati kaleak eta Errando Gebara kalea - Gipuzkoa etorbideko 9-13 tartea). Proiektuak, bere osotasunean, eragingo luke kalearen hasieratik (eliza aurrean/San Isidro ermita) 20 zenbakiraino (Kabia altzariak lehenengo eraikina), eskumako espaloian, Bergara-Arrasate noranzkoan. Lanen 2., 3. eta 4. fasearen aurrekontu bateratua da 325.000 euro, eta egingarria izango litzateke 2019 eta 2020 ekitaldien artean; hortaz, partidari ematen zaio urte anitzeko izaera bat.

- **Santa Teresa - Agerreko espaloien partida – 200.000 euro.** Esku hartzearen aurrekontua guztira da 677.000 euro, eta pentsatuta dago hura exekutatzea 2019an eta 2020an. Azken urteotan ikusi da zonalde horretako urbanizazioak jardunak behar dituela hobetzeko, jardun geroraezinak. Arrazoi horrengatik, 2018an hobetze proiektua idaztea adjudikatu zaio udaletik kanpoko enpresa bati.

- **Azokaren inbertsioen partida – 60.000 euro –** Azoka birmoldatzeko proiektuaren norabidea definitzeko, prozesu parte hartzaile bat egin zen 2016-2017ko ekitaldietan. Prozesu horretan definitu ziren zer ezaugarri nagusi izango zituen udal azokak, eta 2018ko partidaren kontura adjudikatu gura zen proiektua idaztea. Proiektua adjudikatu eta idatzi ostean, hura onartu eta gero, lizitazioa aterako da obrak exekutatzeko, eta helburu moduan planteatu da obrak hasi daitezkeela 2019ko bukaera aldera.

- **Haur parkeen partida - 125.000 euro.** 2019rako lehenetsitako proiektuak dira Santa Barbarako parkea (zolatadura aldatzea, ez jokoena, uste baita oraindik egoera onean daudela), eta esku hartzeak Tokiargi, Obenerreka eta Gesalibarko parkeetan. Azken horiek dira 1998 ingurukoak, eta horiek daude egoera oso txarrean eta behar dute berritze lanak egitea.

- **Astaltatze lanen partida – 200.000 euro, dotazio inportante batez,** azken aurrekontuen joarekin jarraituz, destinatzea diru baliabide gehiago herriko bide publikoetako zorua konpondu eta hobetzeko lanei aurre egiteko.

- **Hezkuntzako inbertsioen partida – 100.000 euro.** Egin gura ditugu ikastetxeen eskaera batzuk gauzatzea, une honetan Hezkuntza sailean eta OZMA batzordean aztertzen ari direnak.

- **Kirol instalazioetako inbertsioen partida – 150.000 euro.** Dotazio ekonomiko esanguratsu batez, antzemandako beharizanen artean aipatu daitezke Iturripen ur beroaren sistema aldatzea, guztiz zaharkitua dagoena eta matxuratu daitekeena edozein unetan, zeinak ekarriko lukeen instalazioak ixtea aldi luze batean. Era berean, ur beroa doan hodiez ez dituzte betetzen oraingo araudiko betebeharrak, materialei dagokienez.

Dotazioaren beste kopuru inportante batek aurreikusten du zati bat jartzea ikusleen segurtasunari buruz egokitzapenak egiteko, Iturripeko eta Musakolako harmailetan.

Azkenik, Musakolako gimnasioaren ekipamenduari buruz, hein batean berritzearen ohiturari jarraituz, 2019an ere jasotzen da makina edo aparaturen bat ordeztzea.

- **Musakolako kiroldegi berriaren proiektuaren partida – 40.000 euro.** Tokiko Gobernu Batzarrak 2018/03/1ean hartutako erabakiz onartua, Ezketa SLP enpresari Musakolan kiroldegi berri baten aurreproiektua egiteko lanak esleitu ziren, zeinak balioko duen, dagozkion foroetan



eztabaidatu eta gero, markatzeko edo identifikatzeko zer ezaugarri bildu eta bete behar dituzten kirol instalazio berriek. Urte anitzeko izaeraz, 2019 eta 2020ko ekitaldien artean, exekuzio proiektua idatzi nahi da, eta horretarako, esleitzen da lehen dotazio bat, 40 mila euroa, 2019an, osatuko den gero partida batekin 2020an.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 807.092,53 euro

% 17,95eko gutxitzea du, 2018ko aurrekontuaren aldean (-176,5 mila euro).

Gutxitzearen arrazoi nagusia dator eman beharreko zenbatekoetatik, Mankomunitatearen inbertsioak finantzatzeko, 61,9 mila euro; 2018ko aurrekontuan, berriz, 280 mila euro ziren, Epeleko isurtegia errekuiperatzeko obrak neurri handian finantzatuta. 2019ko ekitaldirako, hainbat partida sortu dira, finantzatu behar den zerbitzuaren arabera, partida bakar bat izan beharrean, gaur arte hala jasota baitzegoen aurrekontuan.

2018ko aurrekontuari dagokionez, **mantendu dira iaz zeuden partidak eta kontzeptuak** (diru laguntza igogailuak jartzeko /irisgarritasuna hobetzeko, ekarpena Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko, kontzeptu hori gutxituz 22,6 mila euro 2018koaren aldean, horiez gain ekarpenak Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren inbertsioak finantzatzeko), zeinaren kopurua da 521,9 mila euro (2018an baino 4,8 mila euro gutxiago).

Esangura bereziko partida moduan, aipatu daiteke ekarpena San Isidro elizako teilatu obrak egiteko, 30 mila euro, 2018ko dotazioaren osagarria, 147,5 mila euro, izan ere, proiektu idatziak erakutsi du teilatuaren egoera txarraren maila dela hasieran kontsieratutakoa baino askoz handiagoa. Edozelan ere, pentsatutako esku hartzearen exekuzioa dago “impasse” batean, ikusita instalazioen (Donostiako gotzaingoa) solaskide/jabearen erantzun falta dela-eta, izan ere, ikusita tamaina ekonomiko handia duela, behar da aldez aurretik gutxieneko akordio bat lortzea (hitzarmen bat sinatzea hainbat aukerekin, alokairua erosketa aukerarekin, lagatzea denbora epe luze batez eta abar), arrazionaltasun maila batekin ahalbidetuko duena edo bideragarri egingo duena planteatutako udal jarduna.

Halaber, beste partida batzuk, merezi dutenak nabarmenetzea:

- Partida bat Mankomunitateak itzuli beharreko maileguak finantzatzeko, IDAE1 programaren ondorioz (argiteria publikoko luminariak ordeztzea LED teknologiako beste luminaria batzuez), Arrasaten egindako jardunari dagokiona, zenbatekoa 466.176,22 euro, zeina EVETik lortutako diru laguntza deskontaturik, 20.686,70 euro, esan gura du Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutu Nazionalari itzuli behar zaiola 445.489,90 euro. Mailegua itzultzeko, ekarpenak egiten hasi gara 2018ko irailean; hortaz, 2018ko ekitaldiaren kontura itzuliko dira 17.265,18 euro. Beraz, 2019ko dotazioa, urte osoa denez, hirukoiztu egingo du 2018an esleitutako kopurua.

- Azkenik, partida bat sartu da, 86.137 eurokoa, Mentu Multzoko garajeen goialdea iragazgaizteko obretan udalaren parte hartze ekonomikoari aurre egiteko, ordaindu behar zaiena Santa Marina kalea I. faseko (30-32-34) eta II. faseko (36-38-40-42) jabeen erkidegoei, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018/06/21ean hartutako erabakiaren arabera, jardun irizpideak betetze



aldera aurre egiteko orube pribatuetan egiten diren jardunei, gainazalean erabilera publikoko zortasuneko orube pribatuetan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 180.000 euro

2018an jarritako kopuru berdina.

2018an izandako antzeko kontzeptu eta partidekin, jasotzen dira udalaren ekarpen konpromisoak, Garaia S.Coop.ren kapitalari eginak, 2010/10/07an eta 2013/12/17an hartutako erabakien ondorioz (ekarpenak kapitala handitzeko, 1.000.000 euro eta 331.527 euro, hurrenez hurren), eta ordaintzeke geratzen da 2018/12/31n 112.578,53 euro (erabiliz gero 2018ko ekitaldian dauden aurrekontu kreditu guztiak), ordainduko direnak OHZ eta EIOZ zergekin sortutako diru sarreren bidez, lortuak Garaia eremu horretan.

Kapitulu honek garrantzi ekonomiko urria du gastu osoaren aldean, eta normalean bakarrik jasoko lituzke aurrekontu kredituak, langileen aurrerakinak finantzatzeko, 90.000 euroko zenbatekoa; era berean, horiek beste kontu saila bat dute diru sarreretan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 318.150,97 euro

Igotzen da % 0,5 2018ko hasierako aurrekontuko kopuruari buruz, nahiz eta ekitaldi honetan benetan amortizatutako kopuruari buruz gutxitu den argi eta garbi, ▼% 67,4, izan ere, amortizazio aurreratu bat egin da, 655 mila eurokoa.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, estimatu da ez dela izango beharrezkoa mailegu berririk sinatzea (nahiz eta diru sarreren atalean agertzen den 334,98 mila euroko kopuru bat). Estimazio hori egiteko arrazoia da 2019an sinatu beharreko mailegu berrien aurrekontu aurreikuspenaren izaera “teorikoa”, hondar baliabide moduan erabilia, ekitaldiko gastuen eta diru sarreren koadratze formala egiteko, benetan espero dugunean lortzea nahiko baliabide 2018ko itxieratik, zorpetze hori beharrezko ez egiteko. Laburbilduz, ez da espero diruzaintza tentsiorik egotea 2019an, eta finantza desfaserik ere ez, beharrezko egiten dutenak mailegu berriak kontratatzea eta erabiltzea.

Bestalde, oraingo gobernu taldeak adierazi du behin baino gehiagotan bere asmoa dela legealdi bukaeran saneatuta uztea kontuak. Arrazoi horrengatik, urtarrilean kitatu egingo da guztiz udalaren mailegu bakarra, sinatua Kutxabank entitatearekin, zeinaren saldoa, ordaintzekoa, bat datorren kapitulu honetako zenbatekoarekin. Azken batean, hurrengo korporazioak bere ibilbidea hasiko du finantza egoera desiragarri batean, ezinhobean, mailegu hipotekarik gabe, horrela ez du zailtasunik izango edo baldintzarik izango erabakiak hartu behar dituztenean.

Hortaz, aurrekontu aurreikuspen horiek ontzat emanda, 2019ko gastuei eta diru sarrerei buruz (hau da, diru sarreretan, ez dago kontraturik mailegu berririk eta, gastuetan, ekitaldiko amortizazioak betetzen dira), bakarrik amortizatzeke egongo lirarteke itzultzeko aurrerakin bi,



interesik barik, emandakoak bere garaian Eusko Jaurlaritzak, 23,9 mila euro eta 10,3 mila euro, hurrenez hurren, itzuli beharrekoak ordainketa bakar batean 2020an eta 2021ean.

Lehenago esandakoa gorabehera, hausnarketa moduan zorpetzearekiko baliabidea erabiltzeko, inportantea da hau guztia gogoan hartzea:

- Batetik, oraingo lege esparruak, aurrekontu egonkortasunari dagokionez, penalizatzen ditu, nola edo hala, zorpetze baxua duten udalak (ia ez dago Arrasaten), ezen sartzen baita zorpetze txikiagoko dinamika batean → amortizazio baxuak → legezko gaitasun txikiagoa zorpetzeko. Ikuspegi horretatik eta albora utzi gabe oraingo araudiak baimentzen dituen salbuespenak (espero dezagun hobetzea foru aldundiak iragarritako arau aldaketak), ez du ematen oso logikoa denik zorpetze tasa txikiagoa, balio absolutuetan eta erlatiboetan, azken 40 urteotan, egotea legezko mugekin zorpetze berriak eskuratzeko. Argi dago egokia dela egitea joko arauen aldaketa bat, egokituagoak erakunde bakoitzaren finantza egoera errealei.

- Bestalde, aurreko ideiaaren kontraste moduan, ez dugu galdu behar begien bistatik joera bat dagoela mailegu baliabidea erabiltzeko udalaren aurrezte urriko egoera batean (azken aurrekontu ekitaldietan ematen ari den modukoa, hau da, diru sarrera arruntak ia estali ere ez dituenean egiten gastu arruntak), nahiz eta abiatze egoera den zorpetze baxukoa, gertatu daiteke finantza zailtasunak sortzea eta, baita ere, bideraezina izatea epe ertainera edo epe luzera. Azken batean, argi izan behar da zorpetzea ez dela aldagai bakarra, kontuan hartu beharrekoa, kontuan hartu behar dira ere ekitaldiko gastuen eta diru sarreraren egitura eta izaera, baita ere, hartuta dauden konpromisoak, oraingoak eta gerokoak, eskainitako zerbitzuetan eta sortutako azpiegituretan.

Azkenik, aurreko aurrekontuetan bezala, aztertu behar dugu maileguen zorraren eboluzioa, 1991-2019 aldian, eta erabiliko ditugu 2019ko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioak (lehenago aipatu ditugun lan hipotesien arabera, hau da, mailegurik ez 2019an). Halaber, zor hori lotuko dugu diru sarrera arruntekin, lortu direnak aurrekontuetako likidazioetatik (2018koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuetan oinarrituta, eta 2019koak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), diru sarrera korronteen erreferentzia hori ulerturik udalaren gaitasun ekonomiko arruntaren neurri gisa.



MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2019 ALDIAN (MILA EUROAN)

URTEA	HASIERAKO	MAILEGU	AMORTIZ.	BUKAERAKO	▲AURREKO
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+ 8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014	4.393,7	--	1.065	3.328,7	-24,2%
2015	3.328,7	--	966,1	2.362,6	-29,0%
2016	2.362,6	--	714,8	1.642,0	-30,5%
2017	1.642,0	--	315,9	1.326,1	-18,9%
2018(3)	1.326,1	--	973, 7	352,4	-73,5%
2019 (4)	352,4	--	318,2	34,2	-90,3€

(1) - Mailegu berritzat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

(2) – Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murritzeta eta 2011ko berria)

(3) – 2018ko aurrekontua ixtean egindako estimazioen arabera

(4) - 2019ko aurrekontuko datuen arabera, mailegu berririk barik



Maileguen zorra lotzen badugu udalaren diru sarrera arrunt edo korronteeekin, eta 1990-2019 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:

DIRU SARRERA ARRUNTETAN MAILEGUEN ZORRAREN ZERRENDA – 1990-2019 ALDIAN



EKITALDIA	ZORRA 12/31n	ESKUB. LIKID ERAG. ARRUN.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (UFFF 2009 zor moduan)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014	3.328,7	29.347,6	11,3%
2015	2.362,6	32.485,2	7,3%
2016	1.642,0	30.993,3	5,3%
2017	1.326,1	30.850,0	4,3%
2018 (itxiera estim. arabera)	352,4	31.975	1,1%
2019 (2019ko aurrek. arabera)	34,2	32.070,6	0,1%

(*) 2005az geroztik, aprobetxamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru-sarrera arrunt moduan

Koadro biak aztertuta, ikusi genezake udalaren egoera ezinhobea, desiragarria, zorpetze aldagaiari dagokionez (finantza iraunkortasuna), aztertutako aldi osoaren unerik onenean baitago, bai balio absolutuetan, bai diru sarrera arruntei buruz, azken hauek ulertuta udalaren ahalmen ekonomikoaren adierazpidea edo neurria.



Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten maileguen zorraren aldagaiek 1990/2019 aldian eta diru-sarrera arruntek 1990-2019 aldian (2017. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera, mailegu berririk gabe)





DIRU SARREREN AURREKONTUA - 2019

Aurrekontua da 33.448.185,72 euro, eta igoera da % 3,72, 2018ko aurrekontuaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2019ko aurrekontuak, kapituluka, 2018ko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

2019-2018 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUZ KAPITULU (MILA EUROAN)

KAPITULUA	AURR. 2018	%	AURR. 2019	%	ALDEA 2019/18	2019/18
I - ZUZENEKO ZERGAK	7.453,5	23,11%	7.308,1	21,85%	-145,4	-1,95%
II - ZEHARKAKO ZERGAK	510	1,58%	601	1,80%	91	17,84%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.397,5	22,94%	7.342	21,95%	-55,5	-0,75%
IV TRANSFER. ARRUNT.	15.755,5	48,86%	16.631,1	49,72%	875,6	5,56%
V ONDARE SARRERAK	156,7	0,48%	188,4	0,56%	31,7	20,23%
VI ONDAREA SALTZEA	251	0,78%	875,1	2,62%	624,1	248,65%
VII KAPITAL TRANSF.	285	0,89%	77,5	0,23%	-207,5	-72,81%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,28%	90	0,27%	0	0
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	347,9	1,08%	335	1,00%	-12,9	-3,71%
GUZTIRA	32.247,1	100%	33.448,2	100%	1.201,1	3,72%


Koadro honen bidez egiaztatu daiteke zer aldaketa nagusi izan diren 2019ko aurrekontuan:


- Gutxitu da udal fiskalitatearekin lotuak dauden diru sarrerren kapituluaren garrantzia (I. eta III. Kap. – zergak eta tasak), zeina, aurrekontuko diru sarrera guztiei buruz, pasatzen den % 46,1etik % 43,9ra, erabaki kontziente baten ondorioa, hau da, ez handitzea udalaren zerga presioa, partzialki konpentsatua diru sarrera handiago batzuekin, espero direnak II. kapituluaren (EIOZ), pasatzen da % 1,58tik % 1,80ra, exekutatu beharreko obren bolumena bizitu izanaren ondorioz.
- IV. Kapituluaren (transferentzia arruntak) igoera izan da bai termino kuantitatiboetan (+875,6 mila euro) bai portzentaje terminoetan (pasatu da % 48,86tik % 49,72 izatera), 2018ko diru sarrerren aldean. Igoera horren arrazoi nagusia dator 2019rako Foru Funtzaren diru bilketan aurreikuspen handiagoak daudelako (+913,8 mila euro 2018ko aurrekontuari buruz).



- Kapital operazioen garrantzia (VI. Kap. – ondareak saltzea eta VII. Kap. – kapital transferentziak), handitu egiten da apur bat, batez ere oinarrituta hirigintza operazio espezifikoetan (diru laguntzak kalkulatu dira oso irizpide zuhurra erabilita), pasatzen baita % 1,67tik % 2,85era, nahiz eta, sarrera guztiei buruz, jarraitzen duen izaten testigantza izaera dirukopurua, izan ere, ez da iristen izatera 3 euro, jasoko diren 100 euroetatik.
- IX. Kapituluaren garrantzia (zorpetzea) gutxitu egin da era berean, eta pasatzen da % 1,08tik diru sarreren % 1 izatera. Edozelan ere, kopuru hori erlatibizatu egin behar da, izaera guztiz teorikoa baitu, izan ere, azken urteotan aurrekontu kopuruak izan dira erreferentzia hutsak aurrekontua koadratzeko. Egiaz, azken 7 ekitaldietan ez da kontratatu mailegurik, eta 2019rako, lehen esan bezala, aurrekontuetan sartuta badago ere, estimatu da ez dela behar izango ezein kopururik.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi dezakegu, batetik, 2019ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa 2018ko aurrekontuaren aldean eta, bestetik, diru sarreren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa.





Azkenik, adierazi behar da udalak 2019an jaso behar dituen diru sarreretak 100 euro bakoitzeko:

- **45,60** dator **udaleko zerga-arlotik** (diru sarreren I, II eta III. kapituluak).
- **49,72** dator beste erakunde edo administrazio batzuen **diru laguntza arruntetatik**, horietatik 46,07 dator **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik**.
- **0,56** lortzen da **ondarezko diru sarreretatik** (alokairuak, interesak eta abar).
- **2,62** espero da lortzea **ondarea saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik**.
- **0,23** lortzen da inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru laguntzetatik**.
- **0,27** dator **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **1** lortuko lirateke “teorian” **zorpetze bidez**, hau da, egin beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, estimatzen den ez dela beharrezkoa izango operazio berriak egitea, zeren, 2018ko itxieraren testuinguruan lortu beharreko funtsak, estimatzen baita nahikoak izango direla aurrekontua koadratzeko, jo barik kreditu berrietara.



Orain diru-sarrereren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN KAPITULUA – ZUZENEGO ZERGAK - 7.308.100 euro

Gutxitu da % 1,95, 2018ko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2018ko benetako diru sarrerak eta ekitaldiaren itxierako estimazioak, eta ez da onartu zerga aldaketa esanguratsurik 2019rako Ordenantza Fiskaletan, kapitulu honetako zergak arautzen dituztenak (osoko bilkurak 2018ko urriaren 2an hartutako erabakiaren arabera, erabaki zen mantentzea 2018an indarrean zeuden zerga tipoak eta hobariak).

Foru arau baten bitartez berretsi barik oraindik (seguruenik 2019ko aurrekontuak onartzearen foru arauaren barruan), adierazi behar da Euskadiko zerga koordinazio Organoak erabaki duela aplikatzea % 1,5eko eguneratzea katastro balioetan, eta horrek eragina izango du bai hiriko ondasun higiezinaren gaineko zergan (horrela konpentsatzen da eraikuntzen balio galtzea, amortizazioaren eraginez), bai hiri izaerako lurren balio gehitzearen gaineko zergan (nahiz eta zerga horretan gutxituta geratu den apur bat haren intzidentzia Konstituzio Auzitegiaren epai baten eraginez, 2017/02/16koa, zeinak deklaritzen zuen transmisioak ez daudela zergapean baldin eta ez baden agerian jartzen balio gehitzea).

BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGAK - 601.001,00 euro

Igotzen da % 20, 2018ko aurrekontuaren aldean. 2018an exekutatzen ari badira normal aurrekontu aurreikuspenak (kuantifikatu dira 500 mila euroan eta espero da ekitaldi itxiera bat izatea apur bat handiagoa kopuru hori baino), 2019rako jarri dira hainbat operazio, neurri handikoak, eta espero da diru sarrerak haztea kapitulu honetan. Edozelan ere, erabili da irizpide bat apur bat “zuhurra” aurrekontuan, baina gertatu daiteke aurreikuspenetan desbideratze esanguratsu bat izatea (gorantz edo beherantz) eta horrek ekarri dezake ekitaldian egokitze batzuk izatea eta, hala badagokio, gastuen atalera eragitea.

Kapitulu honetako diru sarrerako kontzeptu bakarra da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, eta horrek ez du izan aldaketa esanguratsurik 2019rako, zerga tipoa legez baimendutako gehienguan dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean). Lehenago adierazi bezala, komeni da gogoan edukitzea aurrekontuko kopurua lortzea dagoela udal kontroletik guztiz kanpo dauden faktoreetatik, zehazki, pentsatutako diru sarrerak lortzeko, zergadunek obra proiektuak egin behar dituzte (udal lizentzia behar dutenak), zenbateko gordina guztira 12 milioi euro. Hortaz, jarraipen bat egin behar da kapitulu honetako exekuziotik hurbil, aurreikusteko desfaseak eta egokitze beharrak, eraman daitezkeenak gastuen atalera, hori guztia aurrekontua orekatzea bermatze aldera.

Bestalde, bereizten jarraitzen dugu diru sarreraren kontu saila -EIOZ Garaia-tik datorrena eta EIOZ orokorra, gainerako eremuetan, baina Garaia guneari dagokionez, aukeratu dugu 1 € jartzea aurrekontuetan, handitu egin ahal izango dena. Horrela, diru sarrerarik lortuz gero, horien kontura handitu ahal izango dira Garaia S.Coop.ri ordaindu beharreko kopuruak, 2010eko urriaren 7an eta 2014ko abenduaren 18an osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera, non udalak onartu baitzuen kapitalak handitzea Garaia S.Coop. entitatean, baina kopuruak emango dira baldin eta diru sarrerak benetan sortzen badira udal zerga horretan (eta geroago OHZn).



HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 7.342.000,00 euro

Gutxitzen da % 0,75, 2018ko aurrekontuaren aldean (-55,5 mila euro), hau ere udalaren osoko bilkuraren fiskalitateari buruzko erabakiaren ondorioz, mantentzea 2019an zenbateko berberak 2018an aplikatutako tasetan eta prezioetan.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri moduan hartu da 2018ko benetako diru sarreraren informazioa, gehituta gertatu litezkeenak hemendik eta ekitaldia itxi arte.

Azkenik, adierazi behar da kapitulu honetako lau diru sarrera kontzeptu nagusiek, hala nola ur eta zabor tasak, enpresa hornitzaileek jabetza publikoa okupatzearen tasa eta kirol sailaren diru sarrerak (kiroldegietako tasak), egiten dutela kapitulu honetako zenbatekoaren % 79,5a, zehazki, 5,84 milioi euro.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 16.631.107 euro

Balio absolutuetan handitu da 875,6 mila euro, 2018ko aurrekontuaren aldean, eta % 5,56 portzentaje terminoetan.

Gehitze hori azaltzen du arrazoi nagusi batek, dagoeneko aipatua memoria honetako hainbat ataletan, eta hori dator 2019rako Foru Funtsetan diru sarreraren estimaziotik; Arrasaterentzat da 15.411.007 euro, 983,8 mila euro inguru gehiago 2018ko aurrekontuan jarritako kopurua baino (▲% 6,3). Ikusita zer aurreikuspen egin diren Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren barnean, 2018/10/11n izandako bileran, itxiera estimazioa 2018an dator aldaketa positibo esanguratsu batekin, aurrekontuan jasotako kopuruei dagokienez. Arrasaterako, berriro diot, aurreikuspen izaerarekin, berretsi behar dena kontuen behin betiko itxieran, egingo dena 2019ko otsailean, izan daiteke pasatzea 14.497.166 eurotik, 2018ko aurrekontuetan hasieran aurreikusitako kopurua, 15.038.057 euroetara, azken kopurua (▲% 3,7). 2018ko azken kopuru hori erreferentziatzen hartuta, 2019rako foru funtsaren diru sarreraren aurreikuspenak % 2,48ko igoera bat suposatzen du iazkoaren aldean (-373 mila euro). Azken batean, berri ona da, ekarri dezakeena /ekarri behar duena aurrezkoa hobetzea eta inbertsioen finantzaketa marjina hobetzea.

2019ko kalkulua oinarrituta dago aurreikuspen batzuetan, Foru Aldundiak horri buruz egindakoak, zehazki % 6,51ko igoera batean, hitzartutako zergen diru bilketan, 2018ko aurrekontuko kopuru estimatuaren aldean. Aurrekontuko gehikuntza hori egotzi dakioke, funtsean, Foru Aldundiak berak emandako informazioaren arabera, faktore hauen konbinazioari:

a.- Aurreikusten du ekonomia hazi egingo dela, termino errealean, % 3,8 hazi ere.

b.-Arauetan aldaketa jakin batzuk, eragina izan dezaketenak udalen artean banatzekoa den funtsaren azken kopuruan. Beste batzuen artean, jasotzen da Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzari eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, zeina pasatuko den % 33,19tik 2018ean % 33,21 izatera 2019an.



Kapitulua gainerako kontu sailetan erabaki da aurrekontuan jasotzea azken urteotan finkaturik dauden diru laguntza programen zenbatekoak, dagozkien aldaketekin, informazio eguneratua oinarrituta. Aldaketa horietan, aipatu behar dira aldaketa negatiboak, gizarte ongizatearen sailetik datozenak. Hala, aurrekontuan jarri dira 90 mila euro (2018ko aurrekontuan jarri ziren 115 mila euro) funts bereziaren banatzetik etorritako diru sarrerak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzeko, eta gutxitu dira, baita ere, diru sarrerak, Foru Aldundiak etxeko laguntza zerbitzurako ekarpenean aurreikusitako, zeintzuk pasatzen diren 130 mila eurotik 2018an 100 mila izatera 2019an, Eudelen eta Diputazioaren artean lortutako akordioaren ondorioa, zerbitzuen eskumenak berantolaketaren testuinguruan.

Diru sarreren beste kontzeptu garrantzitsu batzuk izango lirateke EJren ekarpena Gizarte Larrialdietako laguntzak jasotzeko, 240 mila euro (aurrekontuko gastuan oinarrituta), Lanbide-ren diru sarrerak langileen kontratazioak finantzatzeko enplegu sustapeneko programetan, 125 mila euro, eta HABEren diru laguntza udal euskaltegiko zerbitzuaren gastuak finantzatzeko, 395 mila euro.

BOSGARREN KAPITULUA – ONDAREKO DIRU SARRERAK – 188.400 euro

Gehitu egin da % 20,3, 2018ko ekitaldiaren aldean.

Kapitulu honek ez du larregiko garrantzi espezifikorik udalaren diru sarreren multzoan, non diru sarrera kontzeptu nagusia hartzen duten errentamenduek edo errentak, lortuak ondarearen bidez (kapitulu osoari buruz % 92.9). Gehitzearen jatorri nagusia dator Atxabalpeko kirol instalazioen alokairua berrizetik, errentan emanak hitzarmen bidez, sinatua 2018/01/16an Eibar SD talderekin, urteko zenbatekoa (BEZ sartuta) 79,1 mila euro, eta nabarmen igotzen du lehendik indarrean zegoen hitzarmenaren errenta (17,7 mila euro urtean 2017an).

Gaur arte beste kontzeptu batek ere garrantzia izan du, udal diruzaintzan lortutako finantza diru sarrerak edo errendimenduak, nahiz eta espero den izatea 2019an egoera saneatua diruzaintzan, finantza erakundeak gaur egun oso gutxi ordaintzen ari baitira edo ez dute errentagarritasunik batere, hondar izaera dauka, urtean diru sarrerak 2019an 3 mila euro.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 875.100 euro

Handitu da % 248,6, +624,1 mila euro, 2018ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Kapitulu honetako igoera da, Foru Funtsa gehitzearen aurreikuspenarekin batera, 2019ko aurrekontuaren igoeraren euskarria, 2018ko aurrekontuaren aldean. Komeni da argi jartzea kapitulu honetan, aurrekontuko partidak eta zenbatekoak, gaur gaurkoz, bakarrik direla diru sarreren aurreikuspen generiko hutsak, nahiz eta egon dauden espediente batzuk, aurreratzen dutenak hirigintza operazio batzuk gauzatuko direla (Uribesalgo pabiloia, Garaiako etxebizitzak, AE 60-Hondarribia kalea, AE39-Fagor San Andres eta abar) eta aurreikusi daiteke aurrekontuko balioespenak lortu daitezkeela. Hau da, une honetan, ez dago operazio zehatzik, garapen maila nahikoa duena, esateko moduan seguru beteko direla 2019ko diru sarreren aurrekontu aurreikuspenak.



Nolanahi ere, aukeratzen da sartzea aurreikuspen “askoz ere” handiagoak 2018koak baino, ulertzen baita, babeste neurri modura, kapitulu honetako exekuzioak behar duela izan jarraipena eta kontrol zorrotza, 2019ko kontuetan ez gertatzeko gura ez den desorekarik.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 77.500 euro

Gutxitzen da % 72,8, 2018ko aurreikuspenen aldean. Gutxitzen da ez delako sartu diru laguntza osagarrien aurreikuspenik Kulturolako obran (2018an 200 mila euro), eta gutxitu da ere Mankomunitatearen inbertsioen soberakinak itzultzearen aurreikuspena (30 mila eurotik pasatu da mila eurora). Azken batean, kapitulu honetako garrantzia pasatzen da edukitzera izaera testimonial bat.

Aurreko ekitaldietako memorieta azaldutakoaren antzera, komentatu behar da, ez badugu gura inbertsio jardueraren finantzaketa oinarrizkoa bakarrik zorpetzean, egoera baita ia ez dela sortzen aurrezkiarik (diru sarrera arruntak - gastu arruntak), une honetan halaxe baikaude, kapitulu honetako eboluzioa eta kudeaketa (diru laguntzak eta ekarpenak inbertsioak finantzatzeko) klabea da tamaina bateko proiektuak exekutatu ahal izateko. Hortaz, dagozkion gestioak egin beharko dira, saiatzeko konpromisoak lortzen beste administrazio batzuen aldetik elkarrekin finantzatzeko proiektuak.

Bestalde, samurtze aldera, arin samar, uztartzea egin daitezkeen laguntza programetan, hartarako idatzi litezkeen laguntza programak kokatze aldera eta horien kostuan udalari egokitzen zaion portzentajea finantzatu ahal izateko, aurrekontuen exekuzio arauetan jaso dugu aukera bat, behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko 2019ko ekitaldian sinatu beharreko maileguren zenbateko osoa, betiere diru laguntza bidez lortutako finantza portzentajeak inbertsioaren guztizko bolumenaren % 40koa edo handiagoak badira.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.000 euro.

2018an izandako kopuru berdina. Oso eragin txikia du aurrekontuan, izan ere, kapitulu honek jasotzen ditu udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru sarrerak, kontzeptu horretarako onartu den gastuaren kopuru bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 334.977,72 euro.

Kapitulu honek jasotzen du datorren urtean hitzartu beharreko mailegu berrien aurreikuspena.

2019ko aurrekontuak koadratzeko behar den kopuru “teorikoa” da, hau da, behar den diru sarrera osagarria gastu guztiak finantzatzeko. Memoria honetako hainbat ataletan esan dugu legezko mugetatik abiatuta, zorpetze berrietarako eta kontuan hartua, 2018ko ekitaldiaren itxieraren testuinguruan, espero dela soberakin handia izatea (lehen hurbilketa zuhur bat eginda,



lotua baitago oraindik hainbat faktoreri /aldaketari, estimatu daitekeena 3-4 milioi euro inguruan), gobernu taldea, “zero” zorpetzearen helburuarekin bat, ahaleginduko da, ahal den neurrian, 2019an mailegu berririk ez egiten. Gaurko egunean, legealdian egin beharreko inbertsio proiektu nagusiak definitzean lortutako garapen mailarekin, ematen du hura exekutatzetik sortutako finantza beharrek erakusten dutela bai finantzatu daitekeela zorpetze berrietara jo barik.

Bestalde, adierazi dugu ere memoria honetako hainbat ataletan (eta exekuzio arauetan erregulaturik) formalizatu beharreko maileguen kopurua 2019an handitu daitekeela beste milioi bat euroan, kontuan izanik aurrekontua egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruz ezarritako legezko betebeharren kaltetan gabe, finantzatzeko beharrak izanez gero, horiek erantzuteko, beste administrazio batzuekin elkarrekin finantzatutako inbertsio proiektuetatik datozen beharrak, hain zuzen ere. Aurreikuspen hori egin dugu uste dugulako, nahiz eta une honetan ez jakin ziur aukerarik egongo den zentzu horretan, baietz izanez gero, ez litzatekeela logikoa izango uko egitea hura exekutatzeari, udal finantzaketarik ez dagoelako, are gehiago proiektu horiek laguntza portzentaje oso interesgarriak eduki ditzaketenean, exekuzioa bideragarri egiteko. Aurrekontuaren agirian listoia ezarri dugu %40ko finantzaketa portzentajearen mailegu gehigarriaren bidea erabiltzeko, hori guztia kontuan izanik muga hori geroago berriro planteatu daitekeela, osoko bilkurak hala iritziz gero.

Azken batean, zorroztasun irizpidearen ondorioz, udalak aplikatua legealdiaren aurrekontuetan (2016/2019), 2019rako egin diren aurreikuspenak betez gero eta ez bada aukera dagoela era kofinantzatuen inbertsio berriren bat egiteko, ematen du ez dela beharrezkoa izango zorpetzea hurrengo urtean.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko du zer aldagai eragiten duten udalaren zorpetze indizean, bai eta indize horren eboluzioa ere 1991/2019 aldian.



ALDAGAIEN KOADROA, ERAGINA DUTENAK ZORPETZE INDIZEAN 1991 – 2019 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n (5)	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8(3)	1,2%	26.072,0	8,5% (3)
2010	8.179,3(3)	1,52%	27.608,6	8%(3)
2011	9.144,5(3)	2%	25.631,8	10,1%(3)
2012	6.706,3(3)	0,75%	26.665,2	9%(3)
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% (4)
2014	3.328,7	0,40%	29.347,6	3,4%
2015	2.362,6	0,40%	32.485,2	2,3%
2016	1.642	0,15%	30.993,3	1,1%
2017	1.326,1	0,15%	30.850,0	1,1%
2018(1)	352,4	0,15%	31.975	1,1%
2019 (2)	34,2	0,15%	32.070,6	0,07%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.(aurrek. datuen arabera)

(2) Ez da beharrezko jotzen 2019rako aurreikusitako mailegua

(3) Zorraren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFGatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, urtealdi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren. (4) (4) Beheraka "ezohikoa" gertatu da, finantza kargak jaitsi direlako, 2005etik 2 mailegu guztiz amortizatzean. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitu izanagatik eta 2 mailegu amortizatu/bertan behera utzi izanagatik.

(5) 2007 arte, benetako interes tipoa urte amaieran, 2008tik aurrera erabilitako interes tipoa, aurrek.etan hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko

Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertaturikoa, 2,4 milioi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru sarrera gutxiago izan operazio korronteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2019, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela ekitaldi bakoitzeko zor biziaren arabera, amortizazio eritmoaren arabera eta... ekitaldi bakoitzaren diru sarrera arruntaren eboluzioaren arabera!! Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin dugun zorra kitatu eta gero.

Ez denez eskatu mailegu berririk 2011tik aurrera, interes tipoak egonkor egonik, zorraren zenbatekoa jaitsi denez eta diru sarrera arruntak hazi egin direnez apurka-apurka eta etenik gabe, behintzat, 2015era arte, zeina mantentzen den egonkor 2015/2019 aldian, elementu horien guztien ondorio bateratuak suposatzen du serie osoko zorpetze indize baxuenak izatea 2013-2019 aldikoak. 2016/2018 aldian mailegu bakarra dagoenez eta jarraitzen duenez egonkor interes tipoak, nahiz eta zorra jaitsi, mantentzen dira finantza kargak (amortiz.+ interesak), eta horrek esan gura du antzeko diru sarrera arrunt batzuekin zorpetze indizea ia ez dela aldatzen. 2019az geroztik, amortizatuta eta zorra desagertuta maileguetan, zorpetze indizea geratzen da ia ezerezera, ia "zero".

Honekin batera doan grafikoan ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).

